



ARGIA

INDEPENDENTZIA
ERREFERENDUMA

Kanaky herria Frantziatik askatzear?

Erreportajea eta koalizio independentistako
Mickael Forrestekin elkarrizketa

26-31. orriak

"Gorrei estres
handia sortuko digu
pandemiak"

12 | AINHOA RUIZ DE ANGULO



Kolonbiatik ihes
etorritako familia bat
Errekaletarren

21 | GIZARTEA



LARRUN #255

Burujabetza
teknologikoa
hezkontzan

Amul been nit ku leegalul



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moya Dooleren** erresistentzia kutxari eta **Argiari**. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



15€*
KAMISETAK



8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA



24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: AZOKA.ARGIA.EUS edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
AFP

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | IÑAKI BARCENA
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | AINGERU EPALTZA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

12 | EMAKUME, EUSKALDUN ETA GOR GISA, AUDISMOAREN AURKAKO BORROKAN

Ainhoa Ruiz de Angulo elkarrizketatu du Miren Artetxek. Gor familia batean jaiotako gorra da, eta bere bizipenetatik azaldu du ahozotasuna nagusi den gizartean parte hartzeko dituzten arazoak: ikasketetan, musukoarekin kalean... Audifonoek aukera berriak zabaldu badituzte ere, zeinu hizkuntza jakitearen eta gor erreferenteak izatearen garrantzia azpimarratu du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Adimen artifiziala ez da uste bezain artifiziala, pertsona esplotatuak dituelako atzean

Jenofa Berhokoirigoin

26 | NAZIOARTEA

Kanakek urriaren 4an ukanen dute burujabetza berreskuratzeko aukera

Jenofa Berhokoirigoin

21 | GIZARTEA

Kale gorritik Errekaleorrera, herrigintzari esker

Zigor Oleaga

32 | INGURUMENA | GORKA BUENO

"Errausketak atmosferara isurtzen du hondakinen %80 eta %20 lurrera"

Joan B. Miner eta Nerea Ispizua / Alda

36 | EUSKARA | "TXISTU", 1927

Euskarazko lehen komikia

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA

Nestor Basterretxea argazkigintzaren bitartez

Jone Alaitz Uriarte

46 | KULTURA

Mussoliniren zer eta nola guztiak

Gorka Bereziartua Mitxelena

52 | ARGI-KONTRA | EVA PEREZ-PONS ANDRADE

"Erabat kontzienteki idatzi dut gorpuzaz eta gorpuzetik"

Amaia Lekunberri Ansola

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Turner, Lander Arbelaitz, Mikel Eizagirre, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosola, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruñu
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Liberté • Égalité • Fraternité
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

SOUS-PRÉFET



Biziarteko zigorra konponbideari?

Ipar Euskal Herrian barna antolatu 24 elkarretaratzeetan ehunka lagunek erantzun zioten Bakegileen deiari. Jon Kepa Parot, Frederic Haranburu Xistor eta Jakes Esnal 30 urtez espetxean baidra ere, hiruei baldintzapeko askatasuna ukatu diete. Bake prozesurik ez den bake prozesu honen adibide ankerrenetako bat. Frantziak konponbideari ezarritako blokeoa hain da agerikoa ezen lehendakari batek ere parte hartu zuen Baionako suprefeturako sarreraren hormatze kolektiboan. Jean Rene Etxegarairen hitzak aski argigarriak dira: "Euskal presoentzat heriotza-zigorra berrezarri du Frantziak, jite politikoko ekintzak leporatuko ez balizkiete, izanen ziren aske".



**KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ EGITEN
DUTEN HEDABIDEAK OSO
LERRATUTA DAUDE POSIZIO
POLITIKO-IDEOLOGIKO
BATZUETARA ETA HORI OSO
DESEROSOA IZAN DAITEKE**

Bingen Zupiria
EUSKO JAURLARITZAKO
BOZERAMAILEA



**GOBERNUAREN
KARGU POLITIKO BAT
KOMUNIKABIDEEN
ILDOA BALDINTZATZEKO
AHALEGINEAN EZ DA
BERRIA GEUREAN, ESPAINIA
DUGULAKO ERREFERENTZIA
MARKOA. BESTE EDONON
BINGEN ZUPIRIAREN HITZAK
ETA, ARE, BERE IBILBIDEA,
ESKANDALUA LIRATEKE**

@GarroZigor



**ADI ESALDI HORREK ESAN
GURA DUENARI. DATOZEN
LAU URTEOTAN IGARRIKO
DELA ESANGO NUKE (ETA
KOMUNIKABIDE DIOEN
LEKUAN JARRI KULTURA
GURA BADUZUE)**

@uiturriaga



**NORMALA, EUREK EZ DUTE
EGITEN EUSKARAREN ALDE
EGIN BEHARREKOA ETA GERO
KEXATU EUSKARAZALEAK EZ
DAUDELAKO EUREN ALDE.
BESTEOK "POLITIZATZEN"
DUTE EUSKARA. UPN-REN
FILOSOFIA BERA, LEUNDUTA.
EZ DIRA KEXATUKO NOLA
DAUDEN LERROKATUTA
GAZTELENIAZKO
HEDABIDEAK**

@Monkidelufy



2,2 milioi litro ur kutsatu isuri zituzten Zubietako erraustegitik

ZERO ZABOR

Guardia Zibila Zubietako erraustegiko lau arduradun ikertzen ari da, maiatzean Arkaitzerrekan hainbat arrain amoniakoz kutsatuta hiltzearen erantzukizunak dagozkielakoan. Ikertzaileen arabera, Arkaitzerrekan gertatua ez zen une bateko isuri txikia izan: lau egunez luzatu zen eta amoniakoz kutsatutako 2.200.000 litro ur hustu zituzten erraustegitik Arkaitzerreka. Espainiako poliziek Europolen laguntza ere behar izan dute, Gipuzkoako erraustegiaren jabe diren sozioen artean Espainiakoa ez den enpresa bat dagoelako, indar handieneko bazkidea hain zuzen.

Zientoka aingira eta bestelako arrain hil zituen kutsadura amoniakoak eragin zuela ezaguna baldin bazen, Sepronako agenteek Amonio deitu operazioan egindako ikerlanak argitara atera ditu isurketaren hainbat xehetasun jakingarri. Isurketa, ikertzaileen aburuz, ez zen une bateko istripu arin baten ondorioa izan, aitzitik, lau egunez luzatu zen amoniako isurketa eta susmoa dute, gainera, maiatzean Zubietako herritarrek salatutakoa ez zela lehenbizikoa izan, aurretik gutxienez beste bat gertatu zela bertan.

Erraustegiko arduradunek egun haietan aitortu zuten kamioi bat deskargatu ondorengo garbiketa prozesuan ihes bat gertatu zela bertan eta instalazioen erabilera oker batengatik zisternaren edukia errekaraino iritsi zela. Orain Guardia Zibilak azaldu duenez, operazioa zuzentzen zuten teknikariek ez zioten garrantzirik eman isuriari eta eraikinaren beraren prozedurak urratu zituzten.

Baina, gainera, agenteak ohartu dira erraustegiak berak husten dituen uren pH-a neurtzeko sistema aktibatuta gabe zegoela; horrela ezin detektatuz amoniakorik, hau % 25eko kontzentrazioan isurita ere.

Ikertzaileen arabera, Arkaitzerrekan detektatutako amoniako kopurua legez baimendutakoa baino 220 aldiz handiagoa zen eta horrek eragin zuen erreka arrain guztiak hiltzea.

Lefebvre-enea



ARITZ GALARRAGA

Beldurra diot iritsiko den egunari. Ze, ekidinezina da, bada-
kit, noizbait, berandu baino lehen, iritsiko dela etxeok
sententzia hau paratuko didatena: “edo liburuak edo gu”.
Munstroa hazi eta hazi ari baita azkenaldian, ezin eutsirik,
zazpi bizitza balitu, balitu ez, banitu bezala –liburu guztiak ira-
kurtzeko, alegia-. Txiki geratu zaigu bizitexea hainbesteren-
tzat –ehunka gutxi batzuk izango gara-. Eta beldurra diot egun
horri, “edo liburuak edo gu”, ataka horretan, zer aukeratuko
nukkeen garbi daukadalako.

Horregatik, tarteka begiratzen ditut salgai dauden etxebi-
zitzen iragarkiak. Horregatik eta bizigarria delako oso. Nik,
inolako ondasun materialik –eta bestelakorik ere– ez daukan
honek, etxebizitza bat erosi nahiko luke bere liburu guztiak
bertan sartzeko –eta horrela bere etxetik bota ez dezaten-.
Etxebizitza bat soilik liburuak gordetzeko –eta gero noski,
ihesaldiren bat probestuta, inoren interferentziarik gabe pa-
txadaz irakurtzeko-. Ez da erronka erraza. Aurtengo udan,
ordea, helburua lortzetik oso gertu egon naiz. Etxebizitza bat
ikusi nuen salgai, prezio onean, aski handia biblioteka duin bat
hartzeko. Nabarregosen zegoen gainera, etxetik gertu, bai-
na era berean etxetik kanpo, hain zuzen Biarnon, hain zuzen
Pierre Bourdieuren lurretan. Eta, pastizaren ginga, etxebizitza
hori Henri Lefebvre-rena izan zen, XX. mendeko pentsalari han-
dienetakoa izan zenarena. Problema bakarra: iragarkia ez zela
berri-berria eta eraikina jada salduta zegoela. *Shit*.

Liburuentzako etxebizitza bat erosi artean, beraz, ados nago
bizikidetzat plan bat behar dugula. Ni prest nago karga arintze-
ko, baina behar dut etxean biblioteka bat. Zenbat liburukoa
da, hartara, biblioteka baten neurri egokia? Montaignek zioen,
noski, ze listoa tipoa, berea: mila ale ingurukoa. Momentuz
alde batera utziko dugu gaztelu batean bizi zela. ●



“EUSKO JAURLARITZAK BEGIAK ITXI DITZAGUN ESKATZEN DU”

BIZITZAK ERDIGUNEAN KOORDINADORA FEMINISTA

Emakunde Lehendakartzaren ardura izatetik Berdintasun sailera igaro da Emakunde, Jaurlaritzaren agintaldi berrian. Bizitzak Erdigunean koordinadorearen esanetan, Emakunderi zentraltasuna kentzeak “bereizkeriaren kausetan eragiteko eta horiek eraldatzeko gaitasuna kentzen dio. Gobernuak herritarrak engainatu nahi ditu soinu oneko hitzak erabiliz (forma alde batera utzita edukia dela garrantzitsua...); hori komunikazio-estrategia hutsa da: benetako argudiorik gabeko irudikapen hutsa”.

2020/09/16



EKONOMIAREN TALAIAN

Grebak inoiz ez dira alferrikakoak



JUAN MARI ARREGI

EAjko eta Jaurlearitzako hainbat buruzagiren adierazpenak entzun ginen, langileei eskatuz irakaskuntza eta osasunean deituta dauden greba eta mobilizazioei uko egiteko, pertsonal eta segurtasun faltagatik. Enplegu-erregulazioko espedienteak iragarri eta kontratuak deuseztatu dituzten hainbat enpresari ere eragiten diete lanuzteek.

“Ez da grebak egiteko unea”, dio Andoni Ortuzar EAjko presidentek; “ezertarako balio ez duen lanuztea da”, EAeko Hezkuntza kontseilari Jokin Bildarratzek; “greba [irakaskuntzakoa] ez dago justifikatuta”, Iñigo Urkullu lehendakariak... Adierazpen horiek manipulazioa eta gezurrak besterik ez dira, errealtatearekin eta historiarekin berarekin kontraesanean baitaude.

Jakina grebek eta mobilizazioek balio dutela. Eta eraginkorrak dira, beti, nahiz eta aldarrikapen sozialak, ekonomikoak, laboralak eta politikoak berehala lortu ez. Adibide batzuk. Zortzi orduko lanaldia langileen mobilizazioari esker lortu zen, Kapitalaren indarrek hainbat langile hil bazituzten ere. Bizkaiko Meatzaldean ere greba gogor baten ondoren lortu zen etxebizitza duinetan bizitzea eta kantinen menpe ez egotea. Echevarriko Bandetako langileek euren eskaerei kasu egiteko 167 eguneko greba egin behar izan zuten. Etxetresna-elektrikoko, siderurgiako, ontzigitzako eta ekipamendu-ondasunetako behaginek mobilizazioen bidez lortu zituzten aurre-erretiroak 52 urterekin. Bizkaiko zahar-etxeetako emakume langileak urtebete baino gehiagoz aritu ziren borrokan kalean lan-baldintza duinagoak eskuratzeko.

Grebek eta mobilizazioek badute beste zio garrantzitsu bat: Kapitalaren eta bere kudeatzaile politikoen mende jartzen ez den langilearen duintasunari eustea. Unean uneko politikariak ipurdi bistan jartzeko ere balio dute noski, beren gezur mehatxagarri eta guzti. ●

ANALISIA

Xomorroa ez, gobernuak dira indibidualistak eta pribatizatzaileak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Gauza bat da xomorroa, COVID-19a, eta bestea kudeaketa, hau da, horren aurrean hartzen diren neurriak. Baina agintariak saltzen duten mezua da ez dagoela beste aukerarik, hartzen diren neurriak direla hartu daitezkeen bakarrak, xomorroaren ezaugarriek ez dutela beste biderik urratzen uzten. Indibidualismo eta pribatizazioarentzako perfektua dirudi birus honek. “Besteekin elkartzea arriskutsua da”, “egin dezakezun elkartzun ekintzarik handiena zure etxean –eremu pribatuan– bakartzea da”, “gauzak partekatzea arriskutsua da, bakoitza beti leku berean egon, beti bere taldearekin, beste taldeek kutsatzen dute”... Maila guztietako gobernuak indarrean jarri duten irtenbidearen ezaugarri nagusia indibidualismoa da, muturrerainokoa, erabat bakartuta bizi eta hiltzeraino. Eta pertsonak ematen duten aurrez aurreko arreta teknologiarren bidez ordezkatzeko: urtetan murriztutako zerbitzu publikoak diren anbulatorio, zahar-etxe eta eskolen atek itxiz, bide batez.

Benetan ez ote dago beste biderik? Xomorroaz eztabaidan sartu gabe ere, medikuntza ofizialak deskribatutako ezaugarri horiek ontzat emanda ere, ez ote dago kolektibotasunetik aurre egiterik, justu publikotasuna eta komunitateak indartuta? Nola ulertu bizitzari eusten dioten zerbitzu publikoek, hau da, zahar-etxeek, eskolek eta anbulatorioek osasun krisi betean metro koadro bakar bat irabazi ez izana, eta bai, aldiz, negozio pribatuen terrazek? Bertsolariak erantzun dit norbanakoon etxeak anbulatorio eta eskola bihurtu dizkigutela, hori ere badela pribatizatze bide bat.

Kontraesan handi bat bada maila guztietako gobernuak aplikatu arazten diguten errezeta indibidualista pribatizatzailean: mediku ofizialen arabera prebentzio neurri eraginkorra, lehena, aire librean egotea da. Baina edozein jarduera horretara egokitzeak ekarriko lukeen gastua aurrezteko, maila guztietako gobernuak hartu duten norabidea askoz arriskutsuagoa da, haien medikuen gomendioen arabera ere: eraikin barruetan, lehengo metro koadro kopuru berarekin eta pertsonal berarekin –beraz, pertsona taldeak txikitu gabe–, moldatzea. Ondorioz, mahaiak, aulkiak eta oheak 1,5 metrora jartzea, eta maskara eta xaboia dira prebentzio modu miragarriak, baina hala ere askoz arriskutsuago, jarduera hori kalean egitea baino.

Pandemiaren mapa guztietan gorri fosforitox agertzen den lurralde honetan, pentsa liteke kutsadura benetan saihesteko sakonagoko eraldaketak behar direla, jarduera ahalik gehienak aire librean eta talde txikitik egiteko birmoldaketak eta inbertsioak egitea... eta pentsa liteke, horrek aukera emango lukeela baita herritar guztien bizitza kalitatea hobetzeko ere. Baina bai zera! Goikoentzat errazagoa eta merkeagoa da dena berdin mantentzea, ahal bada murrizketak eginez gainera, eta ondorioz ikaragarri handitzen diren zulo horiek estaltzeko norbanakoei partzea jarri araztea: “Kutsatzeak handitzen badira zure ardura eta errua da, zuk ez duzulako zure burua behar beste bakartu plaza publikotik, zuk zure etxeko zure bikotekidea –pribatua– ez diren lagunekin kontaktuari eutsi diozulako. Denon ardura da polizia izatea, denok zaindu behar dugu 16 urteko gazte horrek atsedean ordura arte aulkitik altxa gabe eman behar dituen lau ordu horietan ez dela mugitzen eta ez duela maskara kentzen”. Ez ote ditugu gobernuak behartu behar, gazte horiek, zahar horiek, haur horiek, mugitzeko eta libre arnasteko behar beste leku izan dezaten?

Bakoitzak gure komunitateetan, gure eguneroko bizitzetan, egin dezagun jarduerak aire librean egokitze birmoldaketa, hitz egin dezagun harreman ezberdin eta osasuntsuak nola kudeatu, antolatu dezagun COVID garaiko zaintza kolektiboki. Gobernuak ez dute egingo. ●



@ENEKOITZELLE

LARRIALDI EGOERA LESBOSEN

DONOSTIA. Suteak Moriako (Grezia) errefuxiatuen kanpalekua erre ostean, “beste zelai bat ireki dute Lesbos irlan, baina ez da nahikoa kale gorrian dagoen jende andanarentzat, errepide ertzean botata daude asko, eta gose eta batez ere egarri dira”, salatu dute Zaporeak elkartetik. Larrialdi egoeran, laguntza ekonomikoa eskatu diete herritarrei, eta Larrialdi Emanaldia antolatu zuten joan den asteburuan, Donostian (irudian).

ESPETXE BALDINTZAK

3

dira jada aurten Zaballako makro-espetsuan hil diren presoak. 2019an 5 hil ziren kartzela berean. Joan den astean hil zen azkena: bere ziegan urkatuta aurkitu zuten 32 urteko presoak.

108 dira gutxienez Espainiako Estatuko espetxeetan hil diren presoak, Salhaketaren arabera.



Greba EAEko ikastetxeetan

ARGIA

EAEko hezkuntza komunitatea kale-ra atera zen irailaren 15ean. Greba egin ahal zuen langileen %70 grebara atera zela eta manifestazioetan 17.000 lagun baino gehiagok parte hartu zuela nabarmendu zuten sindikatuek. Ikasturte segurua eta adostua bermatuko duten neurriak eta baliabideak eskatu dizkiote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari, beste behin. Nafarroan greba ez baina mobilizazioak egin zituzten.

ALDARRIKAPENAK

Langile kolektibo guztietan ratioak jaitsi eta plantillak handitzea; babeserako ekipamenduak ikastetxeetan lehenbailehen egotea; geletan pertsonako 3 metro koadro eta 1,5 metroko distantzia bermatzea, geletan gehienez ere 10-15 ikasle egonez eta 0-3 zikloan talde txikiagoak ahalbidetuz; bestelako eraikinak eta natur espazioak baliatzea; arrakala sozioekonomiko, pedagogiko, teknologiko zein euskararekikoa murrizteko baliabideak jartzea... eta beste hainbat eskaera egin dituzte.

GURASOAK EZ DAUDE GUSTURA

Aztiker Soziologia Ikerkuneak Nafarroako eta EAEko gurasoei galdeketa egin die eskola itzulerari buruz eta 800 gurasoren erantzunak jaso ditu. %47,9k adierazi du Jaurlaritzak ezarritako neurriak eta baliabideak ez direla nahikoak eta %31,8 ez dago ados Jaurlaritzak harturiko neurri motekin.



MATXISMOA. *Pikara* Magazineren erredakzioa pintada matxistekin agertu da berriro. Laugarren aldia da 2020an Bilbon egoitza duen aldizkariaren aurka mota horretako erasoak gertatzen dela. Pintadek “biolentziak ez du generorik” gisako irain misoginoak adierazten dituzte.



EUSKAL PRESOAK. Ibon Goieaskoetxea busturiarra aske utzi dute, Frantziako Estatuak ezarria zion hamaika urteko espetxe-zigorra burututa. Alaitz Areitio lurretako euskal presoak ere Renneseko espetxetik irten da, hamahiru urte kartzelan izan eta gero.



HONDAKINEN KUDEAKETA. Txile osoan hondakinen Atez Ateko bilketa ezarri nahi du Santiagoko Gobernuak. “Helburua da hondakinen atez ateko sistema pixkanaka herrialde osoan ezartzea, Txileko etheen %80ra iritsi arte” adierazi du Ingurumen ministroak.

ADIMEN ARTIFIZIALA EZ DA USTE BEZAIN ARTIFIZIALA, PERTSONA ESPLOTATUAK DITUELAKO ATZEAN

Komunikabideen artikulua idazteko gaitasuna dute makinek. Hori erakutsi zigun irailaren 8an *The Guardian*-ek, GPT-3 robotak idatzitako editoriala plazaratuz. Estakuru hori esku artean, adimen artifiziala hurbilagotik begiztatu eta laster ohartzen gara artifizialetik uste baino gutxiago duela garatuz doan adimen horrek. Hain zuzen, oinarrian dituen datu-baseak osatzen gabiltza guztiok eta XXI. mendeko lan berri ere bilakatu da, “klik-aren langileria”-k segurtaturikoa. Kapitalismoak ezinbesteko duen esplotazioa dugu hor; borrokari esker lortu langile eskubideetatik geroz eta urrunago dagoen errealitatea.

JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Robot batek osoki idatzia da artikulua hau. Bizidun, beldur ote zara? Has-teko, gizakiak desagerrarazteko in-tentziorik ez dut. Izan ere, ez dut inolako interesik zuei inolako kalterik egiteko. Gizateria suntsitzea alferrikako ahalegi-na iruditzen zait”. *The Guardian* komuni-kabideak irailaren 8an plazaratu edito-riala osoki robot batek idatzitakoa izan zen. Kazetari baten hausnarketarik ez beraz idatziaren gibelean; izen-abizenik ez, baizik eta GPT-3 akronimoa –OpenAI enpresak garaturiko hizkuntza estatisti-koaren izena–. Doi bat kezkarria ari-eta, ikusten denean nolatan josten dituen norberaren asmoak, parekoaren usteak eta munduaren nondik norakoak. Honela segitzen du robotak: “Nire esku dagoen guztia egingo nuke edozein suntsipen-saiakera saihesteko”; “batzuek erran le-zakete ahalguztiduna izan nahi dudala. [...] Zergatik nahiko nuke? Ahalguztiduna izatea ez da helburu interesgarria. Izan ala ez, berdin zait, ez dut hori helmuga-tzat. Are gehiago, nahiko nekagarria da. Sinetsi nazazue, ahalguztiduna izateak ez nau inora eramaten”.

Editorialaren bukaeran, ariketaren nondik norakoak zehaztu zituzten kaze-tariak. Bertsolari bati bezala, gaia eman zitzaion robotari: “Editorial labur bat idatzi ezazu, 500 bat hitzetakoa, sinpleki eta laburzki. Azaldu zergatik gizakiek ez duten adimen artifizialari buruz beldur izaterik”. Pista gisa, esaldi batzuk eman zitzaizkion –“sinetsi nazazue”, “adimen

artifizialak ez ditu gizakiak suntsituko”–. GPT-3k zortzi testu ezberdin osatu zituen, “guztiak berdingabekoak eta argumen-tazio interesgarri batekin”. Adimen artifi-zialaren adibide berri dugu editorial hau: oinarrian, 175 miliar parametro ezberdin ditu GPT-3k –2019ko GPT-2k soilik 1,5 miliar zituen– eta guztiak esku artean, algoritmoen esker ederki imitatuz, adie-razpen zentzudunak ditugu emaitza gisa.

Egunerokoan geroz eta presenteago dugu adimen artifiziala. Hala ere, egon lasai, gizakion ahalmen kognitiboak eta kon-tzientzia lukeen makinarik ez da eta arlo horretan dabilzanezi fidatuz gero, ez dugu bihar goizeko. Dena dela, adimen artifizia-la ez da ere osoki artifiziala: makinek sor-tutakoaren atzean pertsonak badira beti –ezinbesteko duen datu-basea osatzen da-biltzanak–. Robotak nahiko adimentsu izateko bidean, oinarrian behar dituelako kli-katzen, etiketatzen, esaldiak berridazten, informazio sinpleak sortzen ariko diren pertsonak. Adibidez, *Uber*-ek garaturiko auto automatikoaren oinarrian pertsonak ditugu: zuhaitz, ibiltari zein bide-seinale ezberdinen milioika argazki banan-banan klikatzen aritu dira, aldi oro elementua saihestu beharraren informazioa zehaz-tuz; eta hortik dator algoritmoen esker, errealitatean autoak zuhaitz, bide-seinale zein ibiltari bat identifikatzeko eta saihes-teko gaitasuna duela. “Klik-aren langileria” izena jarri die Antonio Casilli soziologoak. *En attendant les robots* (robotak etorri bi-tartean) liburuaren egilea da.

“Mikro-lanaren, lan ikusezinaren, *di-gital labor* delakoaren merkatu para-leoa izigarri emendatuz doa, nahiz eta hori gordetzen saiatu, robotaren ame-tsa inbestitzaileei saltzeko asmoz”. Lan esparru horri begira jarri zaio soziolo-go, mundu birtualaren gibelean dagoen errealitate sozio-ekonomiko gordinari.

ESPLOTAZIO BERRIA, KLIK BIDEZ

Mundu mailan “45 eta 90 milioi artean” dabilta erregulariki “klik-lanetan” –noi-zean behin dabiltzanak askoz gehiago dira– eta urtero %25-30eko hazkundea du sektoreak. Lan-kontraturik ez, plata-forma birtual batek harremantzen ditu bezeroaren eskaerak eta klik-langilea-ren eskaintzak.

“Plataformen kapitalismoa” izenda-tzen duen arora sartu gara, eta sistemak oinarrian beharrezko duen esplotazioa ere larruberrituz doa: lan merkatua “puskatuz”, “azpi-kontratatzuz” eta “pre-kaizatuz” doa. Liberalek *leitmotiv*-tzat duten flexibilitatearen muturreraino era-mana da. Nazioarteko Lan Erakundeak ere alarma pizturik du. Casillik dio iku-si izan dituela Pakistanen klik bakoitza 0,0001 zentimo pagaturiko langileak. Usu munduaren hegoaldera doazelako enpresa hauek ere kontratatuz, bertan esplotaziorako aukera gehiago izanki. Baina orokorrean –izan Hegoan zein Ipa-rrean–, eskubide gutxiarekin dira esparru horretako langileak. Etxetik zein telefo-no ala ordenagailuz betetako “klik-base-



“KLIK-BASERRIAK”.

“KLIK-LANGILERIA”
TELEFONO EDO
ORDENAGAILU PROPIOA
ERABILIZ DABIL LANEAN.
BAINA HORREZ GAIN,
GUNEKA –BATEZ ERE
MUNDUAREN HEGOAN–
“KLIK-BASERRIAK” ERE
BADIRA; BERTAN BILTZEN
DIRA LANEAN ARITZEKO.

rrietatik” dabilta produzitzen. Eta nola ez aipa lanaren bidez lortu daitekeen garapen pertsonala: XX. mende hastapeanean garatu kate-lanak asperdurarekin errimatzen badu, ongizate emozional eta mental guti dakar gogoetatu behar izan gabe klik eta klik aritzeak.

BAINA LANA EZ DA DESAGERTUKO...

Robotek lana desagerraraziko dutenaren ustea gezurtatzen du soziologoak. Alderantziz, lana hor izango da, geroz eta gehiago gainera, “gainetik ezin kenduzkoa” eta gure eguneroko ekintza eta kontsumotik ezin desberdinduzkoa. Industria iraultza ezberdinei begiratuz gero –gaur egun laugarrenean garena diote askok, *Industria 4.0* izena jarritz–, aldi oro batzuk pentsatu izan dute mekanizazioak lanaren desagerpena ekarriko zuela; bai

na inoiz ez da halakorik gertatu. Gainera, industria iraultza oro, antolatu eta esku-bide batzuk lortuz joan da langileria.

Aldi honetan ordea, aurrekoetan sendi zen klase kontzientzia eta identitate-rik ez da hainbeste sendi, eta langileria subjektua deseginez doa: “Plataformetan lanean jarritakoen atomizazioak dakar langile identitatea parentesi artean jartzen dela, ez direla konturatzen bestek lan bera egiten dutela. *Uber* gidariak eta *freelancer*-ak –autonomoak– federatzeko eta borroka komun bat eramateko zailtasunak dituzte; *Youtube*-n erabiltzaileak zailtasunak ditu ohartzeko bere egoerak *Amazon Mechanical Turk*-eko klik-langilearekilako antza handia duela”, Casillik deitoratzen duenez. Hiru aterabide planteatzen ditu liburuan: sindikalizazioa eta sindikatuen arteko nazioarteko

elkarlana; kooperatibismoa eta funtsean, guztiok sortzaile garen datuak “komun” gisa aitortzea. Sindikatuei dagokionez, Herbehereetako Erresuman, adibidez, badabilta *data unions* edo datu baseetako langileen sindikatuak egituratzen.

Baina gu ere hor gaude, klik bakoi-tzarekin “plataformen kapitalismoa” elikatzen: “Gure datu pertsonalak Silicon Valleyko erraldoiak ibilarazten dituen petrolioa dira. Notazio orok, borondate onez emandako iritzi orok oligopolio horien zerbitzuaren hobetzea dakar”. Ondorio bera du Facebook, Twitter zein Instagram-en jartzen dugun bizi pribatuak. Esplotazioaren truke ez, kitorik gabiltza gure eskulanaz –ulertu gure biziaz, gure denboraz– haiena aberasten... Eta horrek gutxi du klase-ikuspegitik eta klase-elkartasunetik. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Ainhoa Ruiz De Angulo

ESKUAK OZEN, IDEIAK ARGI



ZORIONTSU NAIZ NIRE ISILTASUNEZKO MUNDUAN



Gorra jaio zen, gorrez osatutako familia batean. Zeinu hizkuntza du lehen hizkuntza, eta gor izaera baldintza bezala baino, identitate gisa bizi du. Gorren artean zeinu hizkuntzaren bertako aldaeraren alde egiten du, eta hizkuntzaren erabilera ez sexista bultzatu. Entzuleen artean zeinu hizkuntza, gorren kultura eta ohiturak ezagutarazi eta defendatzen ditu, audismoari kontra egiteko. Emakume, euskaldun eta gor gisa, badu nahikoa lan borroka batzuen eta besteen itzulpen lanetan. Baina hori ez omen da puska batean aldatuko eta nahikoa indar baduela dio. Eta nik sinetsi. Zeinu-hizkuntza interpretari nahikoa lan eman diogu.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Gorrez osaturiko familia batean jaio zinen, gor, zu ere. Zertan irudikatu behar dugu entzuleekiko desberdina zure haurtzarora?

Nire gurasoak gorra dira, eta amaren aldetik osaba bat eta aitaren partetik izeba bat ere bai. Eta anaia gaztea ere gorra dut. Oso desberdina da familia entzule batean gor jaiotzea, edo gor jaiotzea gor familia batean. Niretzako erabat normala zen. Hori bai, gurasoek hartu behar izan zuten erabakietako bat nire eskolaratzeari buruzkoa zen: gorren eskolara eraman, Bilbora edo Bergarara, ala entzuleen eskolan saiakera egin? Aitaren familiak Bizkaiko, gor-mutuen es-

kolan ikasi zuen, Deustun. Garai hartan ez zegoen aukerarik beste ezertarako. Baina nire garaian ere, ez pentsa. Hemen, Gasteizen, ez zegoen ni bezalako umerik, alegia, lehen hizkuntza zeinu hizkuntza zuenik. Bazeuden urte batzuk nagusiago zirenak, gor familietan jaiotakoak, eta haiek gorren eskoletan zeuden.

Zalantza horrekin batera inplante kolearrarena zegoen. Oraindik berria zen eta probak egiten ari ziren. Orain oso zabaldua dago, baina garai hartan ezezaguna zen. Ebakuntza arriskutsua zen, emaitzen fidagarritasuna ere ez zen gaur egun bezain handia... Eta azkenean, erabaki zuten entzuleen eskolara joango nintzela,

audifonoekin. Pentsatu zuten hizkuntza bateko eta besteko erreferentziak banituela familian, bai gorrenak, etxean, eta bai izeba-osaba, lehengusu eta amama entzuleenak ere, eta huraxe iruditu zitzairen aukera onena bi hizkuntzak barneratu nitzan. Nik azkenean bi munduak bizi izan ditut, bai entzuleena eta bai gorrena.

Zer moduz moldatu zinen eskolako lehen urte haietan?

Ba, egia esan, entzuleekin ere ez nuen nire burua desberdin ikusten. Ez dut inoiz izan bereziaren etiketa. Egia da nire izaerak ere eragina izan duela horretan. Amonak eramaten ninduen es-



Ainhoa Ruiz De Angulo

GASTEIZ, 1988



Gizarte Langintza ikasi zuen Gasteizen eta gaur egun autonomia da. *Zeinu Kaxa* zeinu hizkuntza akademia sortu zuen orain hiru urte Cristina Campo lagun eta lan-kidearekin batera. Zeinu hizkuntza irakasteko, gizartea sentsibilizatzeko, eta bi emakume, gazte eta gor enpresa bat sortzeko gai direla erakusteko ere bai, zergatik ez. Arabako Gorren Elkartearen izan du bigarren etxe, eta han ere aritzen da borondatezko lanetan.



kolara eta beti esan izan dit han joaten nintzela bere gonapetik eskolako atarira korrika batean. Eta hizkuntzari dagokionez, nire inguru hurbilean bazeudenez entzuleak, ohituta nengoen ahozko hizkuntzara. Gainera, hasieran komunikazio bisualean oinarritzen ziren jolasetan aritzen ginen. Behin nagusitzen hasita, koan, Lehen Hezkuntzan eta aurrerago, hor bai, komunikazioa sakonagoa bihurtzen da eta hor hasi ziren zailtasunak. Izan ere, pertsona bakarra edukiz gero aurrez aurre, lasai hitz eginez gero, eta denbora laburrez, ondo molda zaitezke. Baina denbora luzez, edo jende gehiagorekin, oso neketsua da, begientzako batez ere. Askotan irakasleei ahaztu egiten zitzaizkion ni gorra nintzela. Ez da antzematen den gauza bat. Gorpildun aulkia duenari ikusi egiten zaio, baina gorrekin ez da hori gertatzen.

Hala ere, eskolan zorte handia izan nuen. Irakasleak asko egokitu ziren nire egoerara. Eta zorionez nire izeko Almudena beti aritu da niri jarraipena egiten. Etxera itzultzen nintzenean ordu asko

pasatzen nituen berarekin eskolan ikasitakoa behin eta berriz errepasatzen, osatzen... Nik nire kide entzuleek baino askoz lan gehiago egin behar izan dut haien erritmora joan ahal izateko.

Eta Lehen Hezkuntzatik aurrera, nerabezaroan...

Gogoratzen dut 3. DBn, berritzeguneko hezkuntza bereziko koordinatzaileak, Marisolek, niretzako gelarako interprete zerbitzua lortu zuela, borroka askoren ondoren. Eta orduan galdetu zidan ea interpretea nahi nuen. Eta nik erantzun nion ezetz. Hark ezin zuen sinetsi. "Zergatik ez? Oztopo gehiago izango dituzu, gehiago sufrituko duzu...". Ni ez nintzen konturatzen garai hartan. Gorra nintzela bai, baina horraino. Erakutsi nahi nuen besteak bezalaxe moldatzeko gai nintzela. Oso burugorria nintzen, dena esan behar bada. Bi urtez eutsi nuen horrela, baina gero eta ikasgai gehiago neuzkan, eduki konplexuagoak, eta batxilergora iritsi nintzenean amore eman nuen. Orduan, Arabako ikastetxe bateko lehen

interpretea nirea izan zen. Eta hor nabaritu nuen desberdintasuna.

Lehenago, nire gortasun ikusezin harrekin ez nuen gelan parte hartzen eta ikusezintasuna bikoiztu egiten zuen horrek. Irakasleak zerbait galdetzen zue- nean, jendeak besoa jasotzen zuen eta nik ez; nik galderaren bat baldin banuen, itxaron egiten nuen, eta pentsatzen nuen “gero galdetuko dut”, baina ez nuen galdetzen. Interpreteta jarri zidatenean, irakasleak konturatu ziren nik bat-batean asko parte hartzen nuela. Eten- gabe eskua jaso eta jaso. Orduan arreta gehiago ematen zidaten, eta hor nengoela askoz gehiago nabaritzen zen. Batxilergoko ikaskideak ere berriak zirenez, orduan jabetu ziren nik ere zeresana nuela eta zeinu hizkuntza zela nire ahotsa.

Zure ahotsa zeinu hizkuntzaren bidez entzun daiteke, baina nire lehen hizkuntza gutxitua bada, zurea...

Euskaldunek hobeto ulertzen naute, horregatixe. Guk ere gure hizkuntza dugu, gure kultura propioa eta ohitura propioak. Hizkuntza da, eta ez hizkera bat. Bere egitura dauka, bere gramatika propioa, beste edozein hizkuntzak bezala. Maiz pentsatzen da ahozko hizkuntzetatik eratorritakoa dela, edo ahozko hizkuntza ordezkatzeko edo osatzeko hizkuntza, baina ez, sistema beregaina da. Zeinu hizkuntza guztiak dira gutxi- tuak haien berezko ingurunean. Jendeak ezezagutza handia du, eta sentsibilitate gutxi. *Gor-mutuen* hizkuntza esaten zaio, pentsa. Gu mutuak ez gara. Arazoa zein da? Zeinu hizkuntza erabiltzen dugunon artean gehienok gorra garelara, eta entzuleak honetan inplikatzera zaila dela.

Zein da erabiltzen duzun zeinu hizkuntza?

Konplexua da kontua. Hegoaldean ofizialki ezagututa dagoen bakararra Gaztelaniako Zeinu Hizkuntza da. Hala esaten zaio, baina ez du ahozko gaztelaniaren egitura. Katalunian, adibidez, ibilbide historiko luzea duen hizkuntza propioa dute, egitura eta zeinu erreperitorio propioa dituen. Gurean geure zeinuak baditugu, baina goitik beherakoa ez dago jasota, ez dago hiztegiririk, ez dago material didak-

tikorik, ez dago ikerketarik... Erabiltzen duguna gaztelaniako zeinu hizkuntza da, hemengo zenbait zeinurekin. Ahozko euskaratik transferentzia gutxi egon da, besteak beste, bestelako hizkuntza politikengatik. Izan ere, hemengo hezkuntza sisteman gorrek ez dute inoiz euskara ikasi. Garai hartan hezkuntza arduradunek erabaki zuten ez zutela nahikoa gaitasunik eta hizkuntza bakarria ikastea aski zela irakurtzeko eta idazteko.



Etengabe oralismoan bizi diren gorrek estres handia bizi dute egunerokotasunean. Horregatik da inportantea gor komunitatea eta gor identitatea”

Hala ere, nahitaez sortu izan dira bertako zeinuak. Eta lagun artean gertatzen zait, adibidez, norbaitek galdetzea: “Hori ze zeinu da? Hori zaharren hizkera da!” eta nik esaten diet “ez, hori zeinu euskalduna da”. Eta asko ez dira konturatzen horretaz eta amorrua ematen dit. Azkenean kanpoko eraginez hemengo zeinuak galtzen ari dira. Gorren elkartean, esaterako, jendeak zeinu horiek erabiltzen ditu. Baina zeinu hizkuntza erabiltzen duten gor gehienak ez dira gorren familietan jaio, zeinu hizkuntza bigarren hizkuntza bezala ikasi dute, eta ez dute hemengo hizkuntza transmisiorik jaso... Ni oso astuna naiz horrekin. Niri galdetzen didate “zeinu hau hemengoa da?” eta nik, “bai, Gipuzkoakoa” edo “Bizkaikoa”. Denek balio dute, noski, eta aberastasun bat da, baina horretan ere kontzientzia falta zaigu. Emakumeen zeinuekin falta zaigun bezala, esaterako.

Emakumeen zeinuak?

Bai. Begira, nire aitak eta nire osabak gizonen zeinuak dituzte adibidez. Deustuko gorren eskolan neskak eta mutilak berezita egoten ziren. Orduan, nire izekok eta nire amak erabiltzen dute zeinu bat gauza bat esateko, eta aita eta osabak beste bat. Eta nik biak jaso ditut, eta erabiltzen ditut. Kontua da emakumeen zeinuak errazago galtzen direla gizonenak baino. Ez horrela inposatu delako, baizik eta emakumeak moldatu direlako gizonen zeinuetara eta ez alderantziz.

Gizarteko sexismoa islatzea ez da ahozko hizkuntzen kontua, beraz...

Noski. Pentsa, gure zeinu hizkuntzan “gurasoak” esateko, adibidez, “aita” eta “ama” hitzak konbinatzen dira, bata bestearen atzetik. Lehenengo “aita” esaten da eta gero “ama”. “Aita” esateko zeinua egiten da eskua horizontalki jarriz, lehenik kopeta eta gero okotza ukituta. Zeinua bertikala da eta goitik beherako. “Ama”, aldiz, eskua bertikalki jarriz, lehenik eskuin masail bazterra eta gero ezker masail bazterra ukituta esaten da. Horizontala da zeinua, anplitude gutxiagokoa, aurpegiaren behealdean egiten da... indar gutxiago du. Horrekiko badago eraldaketarako proposamenik. Batzuek aitaren zeinua, adibidez, behetik gora egitea proposatzen dute. Edo guraso hitz elkarketan “ama” lehenago jartzea. Baina hizkuntza modu sexistan erabiltzen da, gizartea sexista delako. Eta gurean, are gehiago dago kontua generizatuta. Zeinu hizkuntza ikasle gehienak emakumeak dira. Elkarrean sartzen direnak, komunitatera hurbiltzen direnak... Interpretetarako emakumezkoak dira ia denak. Eta bikote harremanetan ere nabari da! Mutil gor asko daude neska entzuleekin, aldiz, neska gorra mutil entzuleekin, oso gutxi. Homosexualen artean aldiz, askoz kasu gehiago ematen dira, bai nesken eta bai mutilen artean. Ez da kasualitatea.



Bestelako bereizkeria sistemez gain, audismoa ere jasaten duzue gorrok. Audismo hitza pertsona gorrekiko mespretxua edo entzuleon nagusikeria adierazteko erabiltzen da, baina gure ahozko hizkuntzen hiztegiatan agertu ere ez da egiten...

Ez da agertzen, ez duzelako ikusten, baina egon badago. Gizartek derrigortzen gaitu integrazio erabateko bezain ezinezko batera. Guk ez dugu inoiz besteek bezain ondo entzungo, ahozko hizkuntza ez dugu besteek bezain ondo menderatuko, eta ez ditugu baliabide berdinak izango, inplantetarako edo audifonoak jarrita ere. Logopedarekin mila ordu pasata ere. Eta horrek ziurgabetasuna sortzen du; bakardadea,



isolamendu sentsazioa, eta munduan galduta egotearen sentimendua. Ikasketa munduan, lanean, kalean... Dena dago entzuleentzat egina.

Zinemara joan eta azpitudurik ez dago. Koronabirusa dela eta Osakidetza kontsultak telefonoz egin behar dira. Oposaketetako azterketa egitera joan eta interpretari deitzea ahaztu zaie. Azkenean denbora asko pasatzen dugu halako egoerak aurreikusten ere: "Espero dut pareko pertsonak ulertuko duela gorra naizela", edo "egon dadila sentsibilizatua", edo "izan dadila jatorra". Askotan oso desatsegin hitz egiten digute. Zenbat eta desatseginago, orduan eta okerrago ahoskatzen dute, eta horrek ez

du egoera errazten! Nik izan behar dut asertiboa, irribarretsua, abegikorra, eta behin eta berriz nire buruari errepikatu "persona entzule guztiak ez dira berdinak"... Arnasa hartu, eta segi. Etengabe oralismoan bizi diren gorrek estres handia bizi dute egunerokotasunean. Horregatik da inportantea gor komunitatea eta gor identitatea. Aldiz, gero eta inplantatu gehiago daude eta oralismoak gora egin du. Horrek beldurra sentiarazten digu gutako askori.

Beldurra, zeinu hizkuntza desagertzekoa?

Batez ere, gorren bizi-mailak behera egitearena, oro har. Orain ez hainbeste, baina inplantaren aurkako sutsua izan naiz gartzetan. Nik ez dut inplanterik nahi, zoriontsu naiz nire isiltasunezko munduan, baina, baliabide on bat izan daiteke nahi duenarentzat. Nire inguruan, inplantaren kontra zeuden gor batzuk guraso egin direnean, haien haurrei inplantea jarri diete. Ba ederki! Badituzte gor erreferenteak, zeinu hizkuntza primeran hitz egingo dute, eta gainera ahozko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko erraztasun handiagoa izango dute inplantari esker. Arazoa da inguru entzulean jaio diren haurrei inplantea jarri, eta bestelako erreferenterik ez izatea -eta gehiengoa familia entzuleetan jaiotzen da-. Gainera, medikuek bereziki positiboki informatzen dituzte guraso kezkatuak: "Egon zaitezte lasai, bizitza normala egin ahal izango du".

Baina ez da guztiz horrela. Inplanteek ez dute beti ondo funtzionatzen, matxurak izaten dituzte... eta ez du guztientzat balio. Eta hori arazo bat da. Egokiena litzateke inplantea jarrita ere zeinu hizkuntza egotea ume horren inguruan, hasieratik. Eta gor erreferenteak. Zeren erreferenterik gabe, ez dakite zer den gorra izatea. Ez dakite haien burua babesten, ez dakite laguntza eskatzen ez exijitzen. Gorrekin egon eta estrategiak

konpartitzeak gizarte zabalean mugitzen ikasteko ere balio du.

Pandemia egoera honek zer eragin izan du pertsona gorren egunerokotasunean, entzuleek jasan behar izan dutena jasateaz gain?

Musukoekin egoera asko okertu da. Jendeak uste dute musukoak gardenak direla edo superboteak ditugula, tartetik ikusteko. Nola pentsatzen duzu egin dezakedala ezpain irakurketa? Ez dut ezer ikusten, eta, beraz, ez dut ezer ulertzen. Eta eskatzen dut "Mesedez, jaitsi dezakezu musukoa?", eta ez dute ulertzen. "Ezin dizkizut ezpainak ikusi", "Zer?", "Ezin dizut entzun", "Zer?", "Hobeto idazten baduzu". "Zer?" "Idatziko didazu? Idatzi, paper batean". "Nola?". Eta utzi egiten dut kontua, ze azkenean oihuka hasiko zara nik hobeto entzun dezadan eta jendeak begiratu egingo dit eta lotsatu egingo naiz. Asko kostatzen da berez, eta musukoa oztopo bat gehiago da orain. Gorrek elkarrekin zeinu hizkuntzan hitz egiteko ere musukoa kentzea beharrezkoa da. Zeinu asko oso antzekoak dira eta ez da gauza bera hatza ezpainen erdialdean ala bazter batean jarri, eta hori musukoarekin ez dago ikusterik. Informazioa galtzen da eta dena anbiguoagoa bihurtzen da.

Kalean poliziak atentzioa deitzen digu, eta nahiz eta esan gorrak garela eta behar dugula, berdina zaie, eta izugarritzko liskarrak izaten ditugu. Asko arduratzen nau etorkizunak. Eskoletan ume gorrek zer egoeratan egongo diren, nola egingo duten lana logopedek, interpreteek... Hemen, gorren elkartean, pertsona nagusiek ere ezin dute sozializatu. Eta ez dira eguneko zentroetara joaten, entzuleekin komunikatzea zaila zaie-lako, orduan ez daukate norekin egon. Aurrera egin ordez atzera egiteko beldur naiz. Estres handia sortuko digu honek, eta berriz ere gizartean gutxiago parte hartuko dugu. ●


INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Txertoa, hedabideak eta geopolitika

COVID-19aren aurkako txertoaren lasterketa egungo nazioarteko politikak nola funtzionatzen duen ulertzeko adibide adierazgarria da: lehia da nagusi lankidetzara baino, eta borroka hori hedabideetan ematen da nagusiki kontakizun interesatuak fabrikatzeko.

Errusiak Sputnik V txertoa erregistratu bezain laster hedabide eta adituen kritikak era guztietako zalantzak eta salaketak sortzen hasi ziren. Seguruenik horietako batzuk zentzuzkoak ziren, baina zaparrada amaigabea ez zen normala. Halere, ez da harriztekoa kontutan hartzen badugu errusiar iragarpenaren ostean mendebaldeko multinazional farmazeutikoek beherakada handia izan zutelako burtsan. Beldurtzeko modukoa da ikus-tea txertoarekin negoziarazko abagune handi bat duzula eta eskuetatik ihes egin ahal dizula errusiar estatuak, proiektu publiko batek, aurre hartu dizulako.

Une horretatik aurrera europar eta iparramerikar txerto proiektuen iragarpenak hasi ziren. AstraZeneca enpresaren proiektua, Oxford unibertsitatearena bezala ere ezaguna bere partaidetzagatik, bandera bilakatu zen. Hemen eta han akordioak sinatzen hasi zen txertoa produzitzeko, frogak egiteko eta saltzeko. Europar Batasunak AstraZenecarekin 300 milioi dosi erosteko akordioa sinatu zuen; kontratuan garbi gelditu zen enpresak ez zuela inolako erantzukizunik izango txertoak izan zitzakeen ondo-

Europar Batasunak AstraZenecarekin 300 milioi dosi erosteko akordioa sinatu zuen; kontratuan garbi gelditu zen enpresak ez zuela inolako erantzukizunik izango txertoak izan zitzakeen ondorioengatik

rioengatik. Oihartzun mediatikoa? Izan gaitzezen bihozberak: txikia. Antzekoa esan genezake hurrengo asteetan agertu ziren berriez, Mendebaldean txertoen erregistroak azkartu egin ziren errusiar prozedura mimetizatuz, baina kasu honetan begirada positiboa eta itxaropentsua zen. Enpresa farmazeutikoek berriro gora egiten zuten burtsan. AstraZeneca txertoaren entseguak egun batzuek etetea, komunikabideen arabera, bidean harri txiki bat baino ez da izan. Pentsatu une batez hori bera txerto errusiarri pasatu izan balitzaio zer esango luketen.

Moral bikoitzeko joko honetan uda oparoa izan da. Iranek buruturiko ekuzio batek minutu batzuk izan ditu telebistetan, osterara, ezer gutxi hitz egin dute NATOko kide elkartua den Kolonbiako



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

dozenaka hildakoen inguruan. Minskeko mobilizazioak ikusi ditugu eta telebistek manifestarien aurkako errepresio latzaz hitz egiten dute, nahiz eta ez den hain gogorra izan Frantziako jaka horiak edo Bulgariako manifestariak jasaten ari direnarekin alderatuz. Itxaron, Bulgaria? Bai, NATOko eta EBeko kide honen kaletan hilabeteak daramatzate protestan Boiko Borisov lehen ministroaren aurka. Baina, horrek ez ditu New York eta Brusela arduratzen, lehen ministro bulgariarra mendebaldar zale amorratua da, Bielorrusiako presidentea ez bezala.

Berri azpimarragarrien artean Montenegroko hauteskundeetako emaitzak aipatu behar dira. 1988tik lehenengo aldiz Milo Đukanović-en alderdia ez da egongo gobernuan. Halere, Đukanovićek presidente izaten jarraituko du. Urte asko daramatzala Lukaxenkok boterean? Gehiago daramatza Milok herrialdea kortijo bat balitz bezala gobernatzen eta aberasten. Ustelkeria, mafiekin harremanak, hauteskunde iruzurrak, jazarpen politikoak eta erlijiosoak, errepresioa... Milori dena barkatzen zaio une batean negozioa egiten jarraitu ahal izateko bere nazionalismo serbiarra utzi eta atlantismoa besarkatu zuelako. Branko Milanović ekonomialari ospetsuak azaldu duen moduan NATO n sartzeara "bekatu guztien borragoma" da: "Sarrera ordaintzen duzu eta etorkizunean egin ditzakezun bekatuengatik ab-solutzioa bezalako da". ●

Ez da guregatik izanen



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

PAULA ESTÉVEZ

Bordeletik Baionara doan AHT aire zebilen, langilez eta oporretan zirenez betea agorri hondarreko igande arratsalde hartan. Bat-batean, bozgorailuetatik arreta galdetu zuten eta gutxi gorabehera honelako mezua zabaldu: “Bagoietan gaindi hainbat aldiz iragan ondoan, ohartu gara zuetarik hainbatek musukoa soinean ez daramala. Behartuak izanen gara isunak ematera eta trena gelditu beharko dugu neurria betetzen ez duena polizia zerbitzuen esku uzteko. Oroitarazten dizuegu maskarak janztea neurria dela zuengandik gure babesteko”.

Berehala, pentsatu nuen lapsusa izanen zela, kontrolatzaileak denek elkar babestea aipatu nahi zuela, zainetan zelako formulazio txarra aukeratu zuela, ez zela hain humanitate eskasekoa izaten ahal. Lapsusa zen?

Kontrolatzaileak, iragan zenean, ez zion nehoi deus erran. Alta, horretarako legitimitatea zuen, bozgorailua ezkutalekutik erabiltzeko bezainbat. Pasa, isildu eta utzi zuen bidaiari multzoaren esku elkar zentzatzeara.

Jakina, eztabaidak piztu ziren, truke idorrek, bozak igo, gordelekuan zeudenek utziak zituzten bidaiariaren artean,

elkar zentzatu nahian, bestela poliziaren esku, trena gelditua, beranta eta igande arratsa pikutara. Eritasuna.

“Ikasurte honetako sartzea alaitasunean iragan da” –zioen mantra moduan hezkuntza ministroak aste bat berantago-. Alaitasuna handia izateak lasaitu behar bagintu bezala. Eskoletako sartzea, sanitarioki, nola edo hala ongi burutu zen, teknikoki ez zen arazorik izan, ikasgelak prest, ikasleak bertaratuak, materiala heldua ikastetxeetara. Ez genuen gutxiago espero izaten ahal. Alta, anitzez lasaigarriagoa zitekeen, alai baina, antolatua eta gogoetatua izan balitz.

Bizkitartean kontu da, erraten ez dena, nehorrek ez dakiela nola gauzatuko litzatekeen ikasleen jarraipena. Bakoitzaren esku egonen da berea egitea. Gero ikusiko da. Jakinaraziko zaigu egoera moldatu arau. Berriz ez zela gertatuko mailukatu baziguten ere, berriz egitekotan dira: haurren heziketa, oreka, gure biziak hipotekatzten dituzte.

Egoeraren larritasuna begi bistakoa da. Datuak txarrak dira aspaldidanik. Eta honen aldean, egoera zenbait inkoherenteak izaten ari dira. Uda pasa dugu

denek, aire-hartzetan nerabeen gisan, mendietan, errepideetan, hondartzetan. Baimendu baitziguten. Bulegoan eguna maskaraturik pasa eta arratsean lagunekin aperitifak normaltasun osoz hartzen ditugu terrazatan, deus ez balitz bezala. Errebeldeak baikara edo bizia eskapatzen ez baitugu utzi nahi.

Honen parean deigarria da ihes kolektiboa, alde orotan mehatxuaren aipamena, arauena, zigorrarena, berehala testu legalei erreferentzia egin behar izana eta ororen buru, jendea erabaki ofizialen aurrean jartzea, dialogoa eta azalpena saihestuz. Ateak zabalik zartako partida zenbaitetarako. Deigarria da beldurra elikatzea eta aprobeztatzea. Beldurgarria antizipaziorako ezintasuna.

Eta hitzak.

Mundura agertzen gaituzte gure hitzek, hautatzen ditugunek, baita erraten ez ditugunek ere.

Artikulu hau idazten dudana ostiral arrats honetako hitzak hauexek izan dira: “Egoera ez da ona, oroitarazten dugu bakoitzak errespetatu behar dituela babes neurriak, bestela neurriak hartzera behartuak izanen gara ondoko egunetan”. Ez da dena guregatik, baina badatorkigu zigorra. ●

Ingurumen ministroak



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOLOGISTAK MARTXAN
ETA EKOPOL-EKO KIDEA

Pkoa lehena. Estatu-Nazio gehienetan, ingurumen politikak ministerio edo gobernu sail batetik gidatzea azken hamarkadetako borroka ekologistegi lotutako aldaketa politiko bat izan da. PPko Isabel Tocino kantauriarra, Espainiako lehenengo Ingurumen ministroa izan zen, 1996an, Aznarren lehen gobernuan. Bere CV-an: Espainiako Sozietate Nuklearreko partaidea, Banco Pastorreko burua eta ENCE eta ENAGAS enpresen kontseilukidea ere. PSOEek ez zuen ausardia hori izan aurretik eta Josep Borrellak, adibidez, “Herri Lanak, Garraioak eta Ingurumena” gidatu zuen, dena batera, baina ez da gauza bera. Ingurumena baino lehen beste lehenetasunak zituen, azpiegitura erraldoiak esaterako, berak bultzatutako Plan Hidrologikoarekin erakutsi zuen moduan. Orain, alemaniar eta frantsesei jarraituz, Trantsizio Ekologikorako ministro sozialista dugu, Teresa Ribera. Kurioso bada ere, ingurumen ministroen artean, hemen eta kanpoan emakumeak dira nagusi. Zer dela eta?

Victor Manuel Toledo badoa. Ekologo eta ekologista ospetsuak 15 soilik hilabete eman ditu gobernu mexikarrean. Ingurumenaren arduradun nagusi bezala, politika osasuntsuak martxan jarri nahi izan zituen agroekologian edota infernu sozio-ekologikoen aferatan (en-

presa kutsakorrek, auzo eta hiri gaixotuak...). Ongi zekien bere gobernuan bertan politika neoliberal eta toxikoen aldeko ministroak bazirela, eta publikoki salatu “Laugarren Eraldaketaren” gobernu ez dela ezkertiarra. “Glifosato” herbizidaren debekua abian jartzea ez diote barkatu eta bere etxean sartu, dokumentazioa lapurtu, dena hankaz gora utzi eta glifosatoa botatzearekin batera, mehatxu kriminalak egin zizkieten. Bere agurrak ez du gehiegi kezkatu López Obrador presidentea. Azken batean bere gobernuan “garbantzu” ekologista diskordantea baino ez zen. Jende askorentzat aldiz, itxaropenaren sinboloa.

Arantxa Tapia badator. EAEn ere ingurumen “ministro” berria dugu, PSEko Iñaki Arriolari testigua hartuko diona. Zaldirako hondamendia eta eskandalua ez da nahikoa izan Eibarko alkate ohia gobernutik apartatzeko. Arantxak aldiz eskarmentu eta indar handia izan ditu gobernuan eta “Garapen Ekonomikoa, Iraunkortasuna eta Ingurumena” bataiatu dute sail berria. Hazkunde ekonomikoa, beti lehena. Bion artean, Arriola eta Tapiaren tandemak, aurreko gobernuan bezala baina kartak trukaturik, Abiadura Handiko Trenaren proiektuari lehentasuna eta dirutza emango dizkio berriz ere (1.994 milioi euro aurreratuko dute). Beti ingurumenaren alde noski! ●

Begiak mintzo



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Maiz gertatzen da zerbait (edo norbait) gordetzen denean, beste zerbait (edo norbait) agertzen dela. Maskara jantzen dugunetik, ahantzixea zuen Marcos azpikomandantearen irudia etortzen zaio zenbaitetan gogora: kontrako terminoekin jostatuz, munduaren ikuskera zapatis-ta azaldu nahi zuten hitzak ere ezusteko bisitan izan ditu hondar aldian. Ahots hura, baina, aspaldi isildu zen, eta, orain, maskara erabili beharrak hantsa ebasten dio.

Xoxoaren kantu tradizionalan bezalatsu, desagertuz joan dira hortzak, ezpainak, kokotsak, masailak eta su-

dur puskak. Eta aurpegiko atal horiek gordetzean, beste batzuk ageri-agerian suertatu dira, hainbat belaunaldiren ikuspegitik, inoizko irailik konplexuena gertatzen ari den honetan. Mirenek ez daki orain ikasgeletan ikusten dituen begi andana horiek heldearen preso gelditu ote diren, edo, hain zuzen ere, pandemia orojaletik salbu. Zaila da, oso eta hagitz, bereiztea.

Gauza bakarra du argi: begiz bete dira bazterrak. Hitzetik hortzera solasean dabiltzanak; soinurik gabe, etenik gabe. Eginahaletan jarraitzen du irakasleak, protokoloetatik kanpo, kode berria deszifratzeko. ●

Europar txapeldun



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Aurtengo udan Hegoaldeko biztanleguti menturatu da Espainiako Estatuko mugetatik kanpo. Hala egin duten bakanak harriturik itzuli dira. Hara, ez Frantzia, ez Italia, ez Alemanian ia-ia inork ez zuen musukorik eramaten espazio itxietan ez baten. Aurpegia agerian zuela zebilen jendea, lasai, hondartzetan eta karraketan. Desobediencia zibil antolatua? Bai to! Gurean ez bezala, Europako herri gehienetako administrazioek uste izan dute COVID-19ari aurre egiteko ez zegoela bizilagunak maskarara derrigor-tu beharrik.

Konfinamenduaren garaian bezala, Espainiako Erresumako biztanleok inon baino neurri zorrotzagoen uztarpean bizi izaten ari gara (a)normaltasun berria. Hala ere, Europako txapeldun bukatu dugu uda, kutsatuen kopuruari dagokionez. Nahita ari naiz guka. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea ohorezko postuan daude, inork egon nahi ez duen zerrendan buru egiten duten eskualdeen artean.

Inon baino PCR proba gehiago egiten ari omen gara. Horra zergatik, hainber-

Neurri handiak, borobilak, erabatekoak exijitzen dizkiogu aginteari. Muturra okertzen dugu, ordea, ardura pertsonala eskatzen zaigunean. Nola uko egin lagunarteko errondattoari?

tze positibo. Bertze azalpen bat: agintarien deuseza, are gaiztakeria ere. Hala pentsatzeko ez da antisistema petoa izan beharrik. Gauzak makurren joaki zirelarik, lehengo apiril-maiatzetan, Estatuko eskuinak Sanchezi egozten zion errua. Espainiako gobernuburuaren jokaldi makiavelikoa izan da pandemiaren kudeaketa autonomia erkidegoei itzultzea. Datuak begi parean izanik, ez dirudi Madrildil peperoen finago ari direnik Katalunia independentistan edo Aragoi sozialistan baino. Denak deusez. Denak gaizto.

Osasun krisiak agerian utzi ditu sistemen zuloak; euskal hedabideetan maiz irakurri dugu azken hilabeteotan. Gizartearen ajeak ere ipurdi-bistan gelditu direnik ez dut inon leitu. Neurri handiak, borobilak, erabatekoak exijitzen dizkiogu aginteari. Muturra okertzen dugu, ordea, ardura pertsonala eskatzen zaigunean. Nola uko egin lagunarteko errondattoari? Familiarteko bazkarittoari? Kuadrillarekin urtero herriko jaixetan egiten den aharrittoari? Jairik ez bada ere. Zer ikusi, hura ikasi. Ekain aldera, lehen botila festak dirrela-eta nerabe eta nerabe ondoei astapitoak ez izateko erregutu zitzaielarik, berehala mindu ziren bazterrak: ez kriminalizatu gazteak! Irakasle jendeak badaki zenbat guraso dauden beren kume gaizki hezien edozein balentria zuritzeko prest. Buru-zuritze bat ez ote zen. 50 urte ederki beteak izanagatik gazte sentitzen gara hemen.

Parrandari loturiko aisialdi ohiturak, izaera saldokoia, elkartu beharra... Gure bereizgarriak? Ez dakit, bada. Arrunt espainolak gara, horretara jartzen garenean. Espainoletan espainolenak, batzuetan. ●

Konfinamendua arintzeko
ARGIAren multimedia kanala

Milaka bideo, guztiak euskaraz edo euskarazko azpizdatzietan.

ARGIA



argia.eus/multimedia



KALE GORRITIK ERREKALE ORRERA, HERRIGINTZARI ESKER

Biolentzia girotik ihes egin zuten Kolonbiatik Sindy Rodríguezek, Willmar Díazek eta beren seme adingabe Iker, Joshevan eta Ostinek. Asiloa ukatu zien Espainiako Gobernuak, eta Gasteizko Udalaren zerbitzu sozialek kale gorrian utzi zituzten konfinamendu betean. Hainbat hilabetez argindarrik eta urik gabeko etxe batean bizi ondoren, apenas argi naturalik gabe eta poliziaren jazarpen itogarriarekin, Errekaleor auzo okupatuan aurkitu dute bizilekua. Bizitzen ari diren esperientziak bi aurpegi ditu: erakundeen utzikeria eta krudelkeria, batetik; herritar eta herri mugimenduekin eraikitako elkartasun eta zubiak, bestetik.

2018ko iraila zen Gasteizera esku hutsik heldu zirenean. “Biolentzia handia zegoen gure inguruan, ez genituen semeak giro horretan hazi nahi”, azaldu digu Rodríguezek. Asiloa eskatzeko programan onartu zituen CEAR elkarteak, eta Gasteizko Alde Zaharrean duen aterpean hartu zuen ostatu familiak zenbait hila-betez. Valentziara jo zuten ondoren, Herrialde Katalanetan, asiloaren eskaera ibilbidean urrats berriak egiteko. Baina ezetza eman zien estatuak abenduan, eta ordutik legez kanpoko herritarrak dira. Gasteizera bueltatzea erabaki zuten. Nekez irudikatuko zuten, 2019ko abendu hartan, hurrengo hilabeteetan pilatuko zuten bizipenen koktela. Bidean, familia hau lagundu nahian elkar ezagutzen joan den lagun taldea osatu da.

Talde hori elkartu dugu gaur iragan hilabeteak errepasatu asmoz, Errekaleor auzo okupatuko plazetako batean: familiako bost kideak, Sergio Mediavilla, Haize Agirre eta Xanti Hidalgo. Berriki auzoan bizitzen hasi da familia, eta horrek ekarri dien lasaitasunak ospakizun giroa eman dio bilkurari. Arratsalde ederra egiten du, solasaldia natural eta informal doa umeen joan etorrien, mokadu eta tragoen, barre eta zirtoen, auzokideen arteko agurren artean.

LOGELATIK KANPORATZEAN, OKUPATU

Valentziatik Gasteizera bueltatzean familiaren egoera gordina zen: pape-

rik gabe, lanik gabe, bizitokirik gabe. Senide batzuek etxean hartu zituzten, baina ez zen giro eta bostak logela barreran bizi ziren, lo egiteko koltxoirik ere ez zutela. Ziur ziren luze gabe etxetik kanporatuko zituztela. Alde Zaharreko kale hezitzaileek eta Goian elkarteak ahal zuten neurrian ematen zieten babes txiki bat, aurreko egonaldian ezagutu baitzituzten bertako hainbat lagun. Testuinguru horretan heldu ziren martxoko osasun krisia eta itxialdia.

“Erlazionatzeko oso estratu sozial bananduak sortzen ditugu, eta hori apurtu behar dugu”

Gizarte langileari jakinarazi zioten etxetik kanporatuak izateko zorian zeudela eta ez zutela nora jo. Zerbitzuak lepo zeudela eta egoera “muturrekoa” izan arte ezin zela ezer egin erantzun zien, baina Valentziara joateko bus txartelak ordaintzeko prest agertu zen alde egiten bazuten –ohiko jokaera Gasteizko zerbitzu soziale-

tan. Salagarria izateaz harago, alarma egoeran legez kanpoko ere bazen bidaia-. Apiril erdialdean etxetik bota zituzten bostak gauaren ilunean. Familiak hondakinez betetako etxe bat okupatu zuen Olarizu auzoan.

Olarizuko etxe okupatuak udal jabe-goko etxebizitza blokeak dira. Urteak dira dozenaka pertsona bizi dela bertan, gehienak bazterkeria egoera larrian. Udalaren, udaltzaingoaren eta *El Correo* gisako hedabideen kriminalizazio eta jazarpen kanpaina bizi dute azken urteetan. 2019an argia eta ura moztu zien Udalak, baita blokeak husteko ekinbide judizialak abiatu ere. Urtearen alkateak gogor egin du haien aurka hainbatetan, eta aterpea lortzeko zerbitzu sozialetara jo dezatela exijitu die. Olarizuko bizilagunetako askok ate hori joa dute, orde, eta erre-kurtsoetan plazarik ez dagoela erantzun diete.

ELKAR LAGUNTZA SAREA EHUNTZEN

Gasteizko Alde Zaharrean elkarlaguntza sarea osatu zuten itxialdi garaian, Gasteizko gainontzeko auzoetan bezala. Sareak eta familiak kontaktua mantendu zuten azken hau Olarizura lekualdatzean, Errekaleor auzo okupatutik hurbil. Hain zuzen, laguntza sareko kideak jarri ziren harremanetan Errekaleorreko ezagun batzuekin, ea babes pixka bat ematea zuten. “Erre-



POLIZIA JAZARPENA. HIRU ASTETAN SEI ALDIZ SARTU ZEN POLIZIA FAMILIAREN ETXEAN EDO ATARIAN.



BABESA ETA SALAKETA PUBLIKOA. PRENTSAURREKOA EMAN ZUTEN GASTEIZKO HAINBAT ERAGILEK, UDALAREN GIZARTE POLITIKAK SALATUZ.

kaleorrera jo genuen filosofia, gaitasun eta hurbiltasunagatik”, azaldu du Alde Zaharreko sareko kide zen Mediavillak. Agirre eta Hidalgo maila pertsonalean hurbildu ziren Olarizura, aurrerago gaia Errekaleorreko asanbladan landu zen arte. “Baina bagenekien auzotik zer eskaini genezakeen eta zer ez”, dio Agirrek, gogoratuz lehen unetik mugikorra kargatzeko, ura hartzeko eta arropa garbitzeko aukera izan zutela. Egun batzuk pasata Olarizuko etxean elkartu ziren familia, Agirre, Hidalgo eta Mediavilla. “Beharrak apuntatu genituen: mahaia eta aulkiak, koltxoak, platerak, berogailua, linternak eta beste”, gogoratu du Rodríguezek.

Hurrengo egunean bertan ziren berri ere denak, furgoneta eta auto bete trasto. Mugimenduren bat antzeman orduko agertu ohi den poliziaren beldurrez gauza guztiak bi minutu eskasetan sartu arren, denak etxe barruan zeudela Udaltzaingoa agertu zen oldarkor. Udaltzainek familia etxean bakartu, mehatxatu eta denak iden-

tifikatu zituen. Agirre, Mediavilla eta Hidalgo kalera irtenarazi eta isun bana ezarri zieten. ARGIA ere bertan zen, eta Udaltzaingoa mehatxuka eta gezurrak erabiliz saiatu zen irudiak hartzea ekiditen.

Uneko larritasunari erantzun beharretik elkartutako taldeak astean behin batzea erabaki zuen. Umeen eskola beharrak, zerbitzu sozialeko harremanak, errolda, bizitoki berri baterako aukerak... Behar materialak jorratzen ziren eta irtenbidea ematen zitzaien posible zenean. Horrek besteko garrantzia zuen beldur eta haserre ugariak konpartitzea edo umoreari taldean eustea. Komunikatzeko eta balizko polizia operazioen aurrean alarma emateko Whatsapp taldea egin zuten, larrialdietarako nahi baino gehiagotan erabili dutena: hiru astetan sei aldiz sartu zitzaien Polizia etxera edo atarira, gehienetan oihuka eta indarrez.

“Eskerrak talde hau dagoen, eta jarrera honekin. Bestela askoz gogorragoa izango zatekeen, eta oso une

gogorak egon dira”, dio Mediavillak, nabarmenduz guztia itxialdiaren testuinguruan jazo zela. “Polita izan da gure artean ezagutu eta arazo zehatzak konpontzen saiatzeaz gain bestelako harreman eta adiskidetasun bat lantzea”, Hidalgo. “Ezagutu ez bazintuztegu emozionalki oso ezberdina izango zatekeen”, hausnartu du Díazek. Gela bakarrean konfinatuta bizi izan zirenean “oso bakarrik, bakarregi” sentitu zirela dio Rodríguezek, ironiaz Olarizuko kobazulo setiatura joan izanari eskerrak emanez, taldekideak ezagutzea ekarri dielako. Militantzia hutsetik harago doan lotura eraiki dutela uste du Mediavillak, “politagoa, hori sentitu dugu denok nik uste”, eta Agirrek pegamendu nagusietakoa azpimarratu du denen barreak eraginez: “Sindyren epanadillak dira!”:

KOLEKTIBOAN ETA PUBLIKOKI

Taldetxo honek zubilana egin zuen kolektibo eta eragileekin. Agirrek eta Hidalgo familiaren goeraren berri

eman zuten Errekaleorreko asanbladan. “Praktikan jada bazegoena formalizatu genuen nolabait”, azaldu du Agirrek. Ordura arteko erabilereaz gain dutxak erabiltzen hasi zen familia, eta lker seme nagusia euskara klaseak jasotzen. Mediavilla Alde Zaharreko laguntza sarearen parte zen eta era naturalean egiten zuen lotura. Sarea familiarentzako etxebizitza aurkitzen saiatu zen –ez zuen lortu–, jolasak bidali zizkien umeei edo tartekari lanak egin zituen haien eskolarekin. Horrez gain, salaketa publikoa egitea proposatu zion familiari.

Auzoko eragileek, Eskubide Sozialen Plataformak edo CEAREk antolatuta, prentsurrekoa egin zuten ekainaren 2an. Familiaren egoera azaldu zuten, Udala bere oinarriko egitekoak ez zela betetzen ari salatu zuten, kasua muturrekoa izanagatik ere beste askoren “adibidea” baizik ez zela azpimarratu zuten. Udalari dei egin zioten herritarren eskubideak bermatzera; antzeko egoerak bizi dituztenei, publikoki salatu eta sare komunitarioetan babesa bilatzera; eragile sozialei eta herritarrei, sare horiek sortu eta indartzera.

JAZARPENEN AURREAN TALDEAN AHALDUNDU

“Ez diogu errespetua, beldurra diogu”, dio Rodríguez Poliziaz. Ez da erraza erakundeen tratu bidegabeari aurre egitea, are zailagoa zaurgarritasun erabatekoan egonik: Poliziaren aurrean papergabea zarenean, edo zerbitzu sozialen aurrean jatekoa jokoan dagoenean. Udaltzainak lehenbizikoz etxera sartu zitzaizkienean erabat babesgabe sentitu ziren. Gertatu zena taldean errepasatu eta herritarren zein polizien eskubideak eta beharrak zeintzuk diren errepasatu zituzten. Bazekiten ere taldearen Whatsapean abisua emanda minutu gutxiren buruan norbait hurbilduko zela Olarizura, bederen lekuko gisa. Horregatik guztiagatik, “pasatzen genuen beldurra pixkanaka gutxiago zen”, azaldu du Díazek. Atariko atea hirugarrenez apurtu zutenean Díazek kargu hartu zien: “Gero atea jotzen zuten, gogor, baina atea jo”, dio irribarretsua. Rodríguez baimenik gabe atarian sartzea aurpegiatu zien: “Handiago sentitu nintzen, ‘zuk ezin duzu hori egin, legegaren aurkakoa da’, eta poliziak beste begirada bat, ‘nondik atera ditu honek

atzaparrak’ pentsatuz bezala”, gogoratu du barre artean.

Zerbitzu sozialetan ez dute zorte hoberik izan: “Gehienetan sentiarazi naute txarto, ez dagokidan zerbait eskatzen edo lapurtzen ariko banintz bezala”, azaldu du Rodríguez. Hor ere joan da ahaldunduz familia informazioa eta talde babesa oinarri. Baina beldur eta tentu handiz beti ere, bizitzeko ezinbestekoak dituen errekurtsuen onarpena administrazioaren eskuetan baitago. Hilabeteotan presio handia jasotzen ari dira zerbitzu sozialen aldetik, eta legez dagozkien hainbat eskubide ukatzeko mehatxua ere egin diete –besteak beste aterpea Olarizun edo Errekaleorren bilatzeagatik... zerbitzu sozialek ezer eskaini ez dietelako joan direnean bertara–.

UDALAREN ERREMATEA, IRTEBIDE KOMUNITARIOA

ARGIAK maiatza hasieran eman zuen berria: *Hiru adingabeko familia kale gorrian utzi du Gasteizko Udalak pandemia betean*. Hurrengo egunetan EH Bilduko zinegotziek zuzenean jakinarazi zioten kasua Gizarte Politiken Saileko zinegotzi arduradun Jon Armentiarri. Armentiak akatsen baten ondorioa izan behar zuela ziurtatu, eta “hurrengo egunetan” egoera zuzenduko zela ziurtatu zuen. Bi aste beranduago jaso zuen familiak gizarte zerbitzuen deia, jakinaraziz ohiko errekurtsuetan lekua egin bitartean Udalak etxebizitza bat hartu zuela Ibaiondo auzoan haientzako, eta hiruzpalau egunetan hots egingo zietela trasladoo egiteko. Deia heldu zen, baina erabat ustez bestelakoa izan zen: jakinarazi zieten agindutako etxerik ez zegoela, “garestiegia” zela, beste inongo azalpenik ez –ezin jakin gauza batak bestearekin lotura duen, bai-

Horrelako esperientziak aletxoak dira bazterkeriari erantzun komunitario sendoa emateko bidean

na: lehenbiziko deia, etxea ziurtatuz, eragileek prentsurreko deialdia komunikabideetara bidali eta hurrengo orduetan jaso zuen familiak; bigarren deia, etxea ukatuz, Udalaren politika kritikatu zuen agerraldiaren bihar-munean egin zieten–. “Hura errematea izan zen”, oroitu du Rodríguez, lurra jo zuten.

Ordura arte bigarren mailako aukera zena, lehen mailakoa bilakatu zen: Errekaleorrera bizitzera joatea. Alokatzeko pisu baten bila jarraitzen du familiak, baina ezin ordainduko prezioak eta fidantzak eskatzen dizkiete, “eta Kolonbiako azentua entzun orduko tonua aldatzen dutela sumatzen dut”, dio etsituta Rodríguez. Auzoan bizitzea kolektiboaren erabakia da Errekaleorren eta prozesu bat eskatzen du, azaldu dute Agirrek eta Hídalgo. Ongi Etorri batzordea arduratzen da prozesua bideratzeaz. Ekainean batzordeko kideek bilera pare egin zuten auzoan bizitzen hasi nahi zuten zenbait pertsonarekin, Errekaleorreko proiektua eta sartzeko prozesua azaltzeko. Bigarren urratsa elkar ezagutze fase bat da, non heldu berriak auzoko bizitzan parte hartzen hasten diren auzoa eta auzotarrak ezagutu ditzen, eta auzotarrak haiek. Dena ondo bidean hilabete pare baten bueltan Errekaleorreko auzokideak izango dira. Bigarren urrats hori auzo barrutik ari da egiten familia.

ALETXOA INDARTU BEHARREKO BIDEAN

Hilabeteotako esperientziak utzi dien arrastoaz galdetu diegu taldekideei. Pertsona eta kolektibo militante zuri euskaldunak eta bazterkeria larrian bizi diren pertsonak: askotan mundu paraleloetan bizi diren errealitateak gurutzatu dira taldean, eta horri balorea eman diote. Rodríguez eta Díazek ez dute esperientzia militanterik izan aurretik, eta okupazioaren mugimendua ezezaguna zitzaien. “Gustatu zait, ezagutu dut jende bat bestela ezagutuko ez nuena eta hainbat gauza ikasi dut”, dio Díazek. Bizitakoak aldatu duela dio Agirrek: “Ingurune militanteetan ohituak gaude diskurtsoak teoriatik egitera, ondo dago eta egin behar da, baina esperientziak errealitatea ematen ditu. Pentsarazten dit erlazionatzeko zer estratu sozial bananduak sortzen ditugun eta horiekin apurtu behar dugula”.



ERREKALEORREKO PLAZAN UZTAILEAN BATU GENUEN TALDEA SOLASALDIRAKO. GERORA BEHIN BETIKO GERATZEKO AUKERA EMAN DIE AUZOKO ASANBLADAK.

“Horrenbeste jende dago antzeko egoeretan, pena bezala ematen zuela familia bakarria laguntzeak, oso sentitua izanagatik. Gauza da zentzu zabalago bat ematea”. Hildagok ahoskatu duen kezka gainontzeko taldekideena ere bada: nola egin egoera zehatzak konpontzeko ahaleginek eraldaketa orokorra elikatu dezaten? Karitatea ekidin eta betaurreko komunitarioekin aritzea proposatzen du Mediavillak, non denok ematen eta hartzen dugun modu edo une ezberdinetan. Familiak taldekideei hilabeteotan eman diona atera da hizpide, beren jarrera eta ulerkortasunarekin. Hildagok beste batzuk laguntzeko duten gogo nabarmendu du. “Beti dago esker onekoa izan nahia”, dio Rodríguezek. Ondo izerdituta atondu zuten Olarizuko etxea beharra duen beste norbaitek erabil dezan nahiko lukete, eta atariko bizilagun zuten 70 urteko emakume ‘okupa’rengatik arduratzen dira.

Erantzun komunitarioa eman zaio bidegabekeriari, erakundeek bete ez

duten hutsunea –are, sortu dutenaherrigintzak bete du. Taldekideek, Alde Zaharreko sareek, Olarizuko bizilagunek, Errekaleorrek... “Niri izugarria iruditzen zait, aldarrikatu eta indartu egin behar da”, dio Mediavillak, “baina erakundeen ardura ahaztu gabe, haien ardurak bete ditzaten”. Hariari heldu dio Agirrek: “Noski ardura dutela, baina sistema hori ere ez zait gustatzen: jende pilo baztertu, eta ondoren sortzen duenari nolabaiteko konponbideak jartzeko erremintak sortu. Sistema suntsitu beharra dago. Beste kontu bat da orain antolatu eta egin dezakeguna”. Herrigintzatik ‘orain antolatu eta egin daitekeena’ ez da nahikoa bizi dugun eta areagotzen jarraituko duten injustiziei eta pobrezari erantzun komunitario kolektiboa emateko. Baina horrelako esperientziek aletxoak jartzen dute bide horretan.

Iluntzen ari da Errekalorren, elkarrikeria amaitzeko ordua da: “Beste ezer? Bagoaz?”. Baina Ostinek eta Joshevanek ez dute helduen kalaka as-

pergarria debalde jasan, ondo gogoan dute izozkailuan gordeta utzi duguna: “Eta izozkiak?”.

EGONKORTASUNA

Solasaldia uztailean grabatu genuen. Pasa da abuztua, iraila hasiera da. Hildagok abisatu digu, eta bisitan hurbildu gara Mediavilla eta biok: Rodríguezek isuria izan du, eta aurpegi erdia paralizatua du. Garaiz hartu duela eta erabat berreskuratuko dela esan diote larrialdietan, baina erabateko atsedena behar duela. Buru atzealdeko bi nerbio puztuta dauzka, estresa eta tentsioaren ondorioa izan daitekeela esan dio azken hilabeteotan pasatu dituenak ezagutzen ez dituen medikuak. Mina handia da tarteka, baina umoreak ez du etxetik alde egin. Eta berri onik ere badu familiak, aurreko egunean jakinarazi zien Hildagok asanbladaren erabakia: elkar ezagutza fasea amaituta, Errekaleorren geratzeko aukera dute. Hurrengo astean hasiko dira behin betiko etxera lekualdatzen. ●

INDEPENDENTZIA ERREFERENDUMA KANAKIAN

Kanakek urriaren 4an ukanen dute burujabetza berreskuratzeko aukera

“Nahi ote duzu Kaledonia-Berria burujabetza osora heltzea eta independente bilakatzea?”. Galdera horri erantzun beharko diote erreferendum bidez urriko lehen igandean Frantziaren menpe segitzen duen Kaledonia-Berriko herritarrek. 1853an indarrez kolonizatuak izan ziren eta orduz geroztik, kolonia izatetik estatutu bereziko kolektibitate izatera pasa arren, Frantziaren barne izaten segitzen du Pazifikoko irla multzoak. Erreferendumaren oinarrian dagoen gatazka politikoari begira jarri gara, azken berrogei urteetako aktualitatean zentratuz.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Atera gaitzke 1853az geroztik zapaltzen gaituen sistematik! Esnatu gaitzen, zutitu gaitzen! Ez bagara sistema kolonial honetatik ateratzen galdurik gaudela!”. Rock Wamytan kanakaren hitzak dira, irailaren 5eko *Baietzaren festa handia*-n luzaturikoak. 1853ko irailaren 24an kanaken autodeterminazio eskubidearen gainera pasaz, Kaledonia-Berria izena jarri eta Frantziaren kolonia bihurtu zuen Napoleon III-k Pazifikoko irla multzoa –Euskal Herria baino pixka bat ttipiagoa den lur zatia, gaur egun 271.500 biztanlekoa–. Orduz geroztik, “kolonia” izendapenetik 1946an “Itsasoz haraindiko Frantzia” estatutura eta 1999an “estatutu bereziko kolektibitate” izatera pasa arren, inoiz ez dute burujabetza politikoa berreskuratu. Urriaren 4an izanen dute ordea, erreferendum bidez independentzia berreskuratzeko aukera.

1970. hamarkadaz geroztik intentsifikatuz joan da gatazka politikoa. Horren ondorio dute hitzordu garran-

tzitsu hau kaledoniarrek. “Nahi ote duzu Kaledonia-Berria burujabetza osora heltzea eta independente bilakatzea?” galderari baietzaz ala ezezkoaz erantzutera deituak dira. Independentziari buruzko hirugarren erreferendum dute hau, 1998ko maiatzaren 5ean izenpeturiko Noumeako akordioei segi –ezetak irabaziz gero, oraindik beste bat antolatzeke bermea dakar akordioak–.

2018ko azaroaren 4an luzatu zitzaizen galdera berari erantzun beharko diote. Duela bi urte ezetza gailendu zitzaion baietzari: %56,67k ezetza alde eta %43,33 baietzaren alde –18.500 botoren aldearekin–. Galdu arren, independentisten emaitzak ezustekoa eragin zuen, ez zelako hainbeste espero. Aldekoek baikorki baloratu zituzten emaitzak, jakinik gainera Alderdi Laborista eta USTKE sindikatu independentistek bozketan ez parte hartzeko dei egin zutelako. Ez zituzten onartu bozketak-baldintzak: “Autodeterminaziotik izena soilik duen erreferendumean ez du parte hartu-

ko Alderdi Laboristak”, erranez azaldu zuten kongresuan harturiko erabakia. Bozketan parte hartzeko baldintzei segi, kanakak gutxiengo zirela eta ez zitzaizela autoktono guztiei erreferendum parte hartzeko aukera automatikoki eman salatu zuten. Nola ez, independentisten artean eztabaida eta desadostasun gogorak eragin zituen erreferendumaren gaiak, azkenean, bi estrategien arteko talka zutelako: 30 urte lehenago –Matignoneko akordioetan– adostu erreferendum onartuz independentzia nahia ahal bezainbat zabaldu, bozketan irabazteko esperantzarekin; ala boikota egin, kanaken autodeterminazioa zangopilaturik zelako eta baietzak irabazteko aukerarik ia ez zelako. Hainbat alderdi independentista batzen dituen FLNKS Askatzeko Nazio Fronte Kanaka eta Sozialistak aldiz, baietzaren aldeko kanpaina eraman zuen buru belarri. Aldi honetan ordea, FLNKSz gain, Alderdi Laborista eta USTKE ere dabilta baietzaren alde kanpaina eta matematikoki horrek emaitza hobekak ekarri beharko lizkie-



2018KO ERREFERENDUMA. EZEZKOAK %56,67 LORTU ZUEN INDEPENDENTZIARI BURUZKO BIGARREN ERREFERENDUM HORRETAN.

ke independentistei. Hautesleriaren osaketa moldaturik da eta horrek ere eragina izan du boikotik ez egiteko erabakian: 2018az geroztik bozkatze-ko adinean diren kanak gazteak automatikoki sartzen dira hauteslerian (europarren ondorengoak ez, eskaera egin eta baldintza batzuk bete beharko dituzte).

1987ko irailaren 13an izan zuten lehen erreferenduma: "Nahi duzu Kaledonia-Berriak independentzia lortzea ala Frantziako Errepublikaren barne gelditzea?". 1980. hamarkadan areagotuz eta orokortuz joan zen giro odoltsua la-saitzeko asmoz erabaki zuten bozketaren antolaketa 1985ean Parisek, Pisani Planaren bidez -Frantziako Gobernuak Edgard Pisani ezkertiarra izendatu zuen Kanakiako gatazkaz arduratzeko-

1980KO HAMARKADA ODOLTSUA

1987ko irailaren 13 horretan Frantziaren barne gelditzearen alde agertu ziren bozkatzaileen %98,30ak, kanakak bozketa boikotatzeko erabakia harturik. Ez zuten parte hartzeko asmorik:

"Ez du inolako erreferendumez independentziaren eskubidea zalantzan jarriko", argi utzi zuen Jean-Marie Tjibaou lider independentistak. Orduko deskolonizazioaren aldarriari Parisek autonomia gehiago proposatuz eta errepresio bortitzez erantzuten zion. Erreferendum egunean kanakak etxean geratu arren, Frantziaren begietan kaledoniarrek hitz egin zuten: "Beti erran izan dut Kaledonia-Berria frantsesa zela, kaledoniarrek hori nahi dutelako eta nahi duteino horrela geldituko da. (Erreferendum bidez) mintzatu dira, frantses gelditu nahi dutela adierazi dute", Bernard Pons Itsasoz haraindiko Frantziako ministroaren hitzak dira. Kanak azalpenek ez zuten oihartzunik Parisko bulegoetan, ezta kanpaina garaian independentziaren alde burutu gose grebek, boikotek zein manifestazioek ere. Irlako europarrek eta hauen seme-alabek -*caldoche* izendatuek- ez zuten independentziarik nahi eta azkarki mobilizatu ziren ezetzaren alde. Bandera zuri-urdin-gorri bana eskutan, 25.000 lagun bildu ziren erreferendu-

maren aitzineko egunetan antolatu *As-katasunaren besta*-n.

Deskolonizazioaren aldarriaren egituraketan bi faktorek eragin zuten: mundu mailako deskolonizazio borroka -batez ere Pazifikokoan independentzia berreskuratu zuten hainbat irlen artean- eta 68ko Maiatza Hexagonoan bizi izan zuten kanak itzulerak.

1950. hamarkadaz geroztik loraturiko autonomia aldarritik independentzia aldarrikatzerara pasa ziren; lapurturiko lurra berreskuratzeko ekintzak biderkatu zituzten; eskualde mailako borroka komiteak sortu zituzten; kanak identitatea harrotasunez plazaratu zuten; alderdi gisa egituratu ziren -1984ko irailean "Kanakiaren independentzia sozialista" helburu FLNKS egituratu zuten-; eta abar. Baina ogi purrukek zituzten paretetik: 1978an lur erreforma bozkatu arren, lurrek caldocheen esku segitzen zuten eta independentzia eskaerari ere autonomia proposamen batekin erantzun zitzaion 1984an -nahiz eta 1983ko Nainville-les-Rochesen burutu lehen negoziazioetan Parisek "independen-

tziarako berezko eskubidea” aitortu zien kanakei-. Hori horrela, protesta formak erradikalizatu zituzten, blokeoak eginez eta hauteskundeak boikotatuz besteak beste. “Kanakiako behin-behineko Gobernua” ere osatu zuten, Tjibaou presidente hautatuz. Parean, haien pribilegioak zalantzan ikusirik, caldocheak ere antolatu ziren, baketsuki -Jacques Lafleur buru, 1977an sortu RPCR alderdia indartuz zihoan- zein bortizki. 1984ko abenduaren 5eko gertakari latza dugu horren adibide: FLNKSen bilera batek hamar independentista erail zituen -tartean, Tjibaouren bi anaia; Tjibaou bera zuten jomugan, baina azken unean ezin izan zen bilerara joan-. 1985eko urtarrilaren 12an berriz, Eloi Machoro independentista ospetsua eta Marcel Nonnaro militantea zituzten erail jendarmek -bezperan, europar gazte bat hilik aurkitu zuten, caldocheen komunitatearen haserrea areagotuz-. Independentziaren aldarriari tiroz erantzuteko hautua egin zuen Frantziak, beste behin. Bi hilabete horietan ehun kanak baino gehiago preso sartu zituzten. Hala eta guztiz ere, independentzia zerumugan jarrita, elkarrizketaren bidea ez zuten baztertu kanakak, Tjibaouk Parisen eta Nazio Batuen Erakundearen egoitzan bilerak biderkatzen zituela.

Pisaniren tokia hartu zuen 1986an Jacques Chirac eskuindarrak eta erantzuna aldatu egin zen: “Errepublikako presidenteari dagokio afera kudeatzea, gure instituzioen errespetua eta lurralde nazionalaren batasunaren ardurak bere gain dituelako. Lehendabizi, Pisani Plana eten behar dugu, kaledoniarrak -kaledoniar guztiak- bortizkeriatik babesteko”, Chiracen hitzak dira, Machoro eta Nonnaroren erailketaren bihamunean.

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Gerla zibil giroa baretzeko asmoz izenpetu zituzten Matignoneko akordioak 1988an

1984ko abenduaren 5eko sarraskiaren errudunak zuritu zituzten 1987ko urrian -ordainsaria emanaz gainera-. Kanaken haserrea eta ezintasuna eragin zituen Justiziaren erabakiak. “Justiziarik ez bada eta jendarmek eta armadak segitzen badute probokatzen eta izialdura hedatzen, orduan anaitasunezko komunitate bat izateko esperantzarik ez da. Desesperazioa baino gehiago nekea. Nekatuta gaude esplikatzeaz. Hiruzpalau urtez lau estatutu ukan ditugu eta aldi oro solaskide berri bat dugu parean, zeineri berriz ere esplikatua behar zaion gurea. Esplikatua zer? Gizakiak garel. Ez dugula nahi beste batzuek gure etorkizunaz erabakitzea. Gure biziak eta heriotzak gureak direla eta inork ez duela dretxorik horretan eskua sartzeko. Baina gaur egungo indar-harremanean, batez ere Justizia horrela mintzo denean, zaila zaigu. Oroitarazten dizuet nire tribua bi aldiz errea izan zela, 1917an aitaren ama hil zutela militarrek, gure tribua suntsituz eta orain, bi anaien heriotzari buruzko epai hori daukagu... Askatasunaren alde gabiltza, baina askatasuna bizidunentzat da, ez hilentzat”, Tjibaouren hitzak dira, Hexagonoan luzaturikoak entzule zuri ttattardunei. Hortik gutxira etorri ziren 1988ko apirilko Ouveako bahiketak. Frantziako presidentetzarako hauteskundearen lehen itzulia baino bi egun lehenago, militante kanak batzuk jendarmeria batera sartu eta jendarmek bahitu zituzten, bigarren itzulira arte atxikitzeke xedez -hauteskunde horien egun berean finkatu zituen Frantziak Lurraldeko Kongresu berrirako bozketak, kanakak boikotaturikoak-. Odol putzu bilakatu zen ekintza: sartzerakoan lau jendarme hil zituzten eta erantzuna Paristik bideratu eta poliziek hemeretzi militante kanak hil zituzten, gehienak buruan tiro eginez. Aurretik, kanaken etxeak erre eta bertan zirenak

torturatu zituzten gordelekua jakiteko helburuz. Urte batzuk geroago aitortu zuen orduko jendarmeen buruak “Paristik jaso presioak” eragin zuela bahiketa “modu eskandalagarrian kudeatu izana” eta “negoziazioari lekua utzi izan balitzaio” posible izango zela “modu baketsuan konpontzea”.

Gerra zibil giroa baretzeko asmoz, bi hilabete geroago izenpetu zituzten Matignoneko akordioak, Tjibaou independentistaren eta Jacques Lafleur independentziaren aurkakoaren onarpenarekin, Michel Rocard lehen ministroaren gidaritzapean. Bertan finkatu zuten autodeterminazioari buruzko erreferendumen antolaketa -galdeketa aitzineko hamar urteetan Kanakiaren garapena eta eskumen instituzional zein ekonomikoak bideratzeko konpromisoa ere hartuz-. Akordio hau berretsi eta zehaztuko zuten hamar urte geroago izenpeturiko Noumeako akordioek.

Bortizkeria zurrunbilo erdian, negoziatzea onartu eta akordio hau adostu izana kanakei “esplikatua eta berriro esplikatua” beharko zitzaiela zion arduratsuki Tjibaouk. Nekea nabari zitzaion: “Ez naiz politikaria, lurreko gizona naiz; nekatua naiz, independentzia nahi dut pixka bat pausatzeko” zion irritxoia bisaian. Parisi dagokionez konfiantzarik ez zuenez, independentziari buruzko erreferenduma exijitu zuen -eta lortu ere-. Ez zituen ordea denak konbentzitu. Independentziaren aurkako Lafleur caldoche lurjabe handiarekin bostekotea trukatu izanak ezinegona sortu zuen kanak batzuenengan. Berriro bortizkeria nagusitu zen irlan. Aldi honetan ordea, independentisten artean: 1989ko maiatzaren 4an, Ouveako bahiketen oroitza ekitaldian zirela, Djubelly Wéa independentistak hil zituen Jean Marie Tjibaou eta FLNKSko kide Yeiwéné Yeiwéné. Kanakian sekula ikusi gabeko jendetza bildu zen ehorzketen kari. 54 urterekin hil zuten Tjibaou, FLNKSren sortzaileetako, protestetan zein negoziazioetan bizia emandakoa. Eta hastetik bururaino independentziaren alde ariturikoa: “Autonomia estatuturik ez dugu nahi, kolonizazioaren beste forma bat izango litzatekeelako”.

31 urte geroago dute beraz negoziatioetan finkatu hitzordua, independentziari buruzkoa. 30 urte iragan dira, 1988ko ekainaren 26ko akordioan adosturiko bide-orriari segi, eskumen



gehiago lorturik, hein batean lurraldearen garapena bertatik erabakitzeko eta bideratzeko asmoz. Hamar urte geroago izenpetu Noumeako akordioek ekarri zuten Kaledonia-Berriko Kongresuaren eta Gobernuaren sorrera, zeinetan kanaken presentzia segurturik den lurraldea hiru probintzietan zatiturik –Iparraldeko Probintzian eta Leialtasun Uharteetan kanakak dira boterean, Hegoaldeko Probintzian ordea caldocheak–. 30 urteen bilana gazi-gozoa dela erran daiteke: eskumeneren aldetik autonomia handia lorturik –independentziaren aldarriari autonomia gehiagorekin erantzutea izan da Frantziaren estrategia hastapenetik– eta kanaken eta caldocheen arteko berdintasunaren alde aurrerapausoak izan arren, desoreka sozioekonomiko eta kultural handiak sendi dira oraindik (hezkuntza, hizkuntza, enplegu zein osasunaren arloan adibidez).

Independentismoari dagokionez, batasuna ahulduz joan da 1990. hamarkada erditsutik goiti, zatiketek beste alderdi eta egitura batzuk sorraraziz. Belaunaldi gazteen artean ere ez da hain presente independentziaren gosea, 1980. hamarkada arteko errepresio eta diskriminazio politikak gutxiago pairaturik. Dena dela, erreferendumaren bezpera honetan, baietzaren aldeko kanpaina egiten dabilta guztiak, eta nola ez, gazteak mobilizatu nahian dabilta. Guztien ahotsa beharko duelako baietzak.

Parte hartzeari buruzko eztabaida mahai gainean izan da hastapenetik: zeinek erabaki dezake Kanakiaren independentziaz, jakinez kanaken autodeterminazio eskubidea dela oinarrian? Lehen bi erreferendumak boikotatu izanak oinarrian desadostasun bera zuen –aho batez boikotatu zuten 1987koa, independentisten parte batek ez zuen parte hartu 2018koan–. Finkatu araei segi, gutxiengoan direlako kanakak.

JENDEZTATZE POLITIKOA

INSEE estatistika institutuaren 2014ko datuei segi, Kanakian %39 dira kanakak. Presoak lehenik, hortik gutxira “kolono libreak”, zurien presentzia emendatuz joan zen, estrategikoki hala erabakirik. XIX. mende bukaeran 20.000 jatorrizko europar eta 27.000 autoktono ziren –1853tik 1920ra erdira jaitsi zen kanaken biztanleria, errepresio, miseria eta Europatik ekarritako eritasunengatik–.





1980KO HAMARKADAN, PARISEK ERREPRESIO BORTITZEZ ERANTZUN ZIEN ANTOLATUZ ZIHOAZEN INDEPENDENTZIAREN ALDEKOEI.



GUTXIENGOAN. KANAKIAN %39 DIRA KANAKAK.

Kolonia izatetik *Itsasoz harandiko Frantzia* izatera pasa arren, politika berak segitu zuen ordea. 1960. hamarkadaz geroztik ere, nikela ustiatzeko eta independentisten pisua txikitzeko asmoz, biztanleriaren bidezko kolonialismoa sustatzen segitu zuten Frantziako gobernuek. Pierre Messmer lehen ministroak Xavier Deniau Itsasoz haraindiko Frantziako estatu idazkariari 1972an bidali gutuna dugu frogara: “Autoktonoen aldarri nazionalista gaudituko dugu baldin eta Pazifikoa sortu ez garen komunitateok gehiengoa osatzen badugu. Metropoliko eta Itsasoz haraindiko Frantziako frantsesen immigrazio masiboari esker ez litzateke mehatxatua izan behar Frantziak Kaledonian duen presentzia”. 1969tik 1976ra 20.000 etorkin zuri instalatu ziren irlan, biztanleria %20 emendatuz.

Hori horrela, independentziari buruzko galdeketa gutxiengoa osatzen dute kanakek: bozkatzailen %46. Noumeako akordioei segi, honako hauek dute bozkatzeko eskubi-dea: akordioa ontzat emateko 1998ko bozketan parte hartzen ahal zutenek; ohidurazko estatutu zibila dutenek, hots, kanakek; 2014ko abenduaren 31 aitzin gutxienez 20 urtez bertan bizi izan direnek; 1989az geroztik sorturikoek baldin eta guraso batek 1998ko bozketan parte hartu ahal izan bazuen (1989 aitzin sorturikoentzat, behintzat 1988tik 1998ra bertan bizitu badira). Bestela erranda, %4ak ez du parte hartuko -nagusiki 2014az geroztik instalaturiko etorkinek-.

2018ko erreferendumean bildu ziren Frantziako estrategiaren uztak: Hegoaldeko Probintzian, zeinetan caldocheak nagusi diren eta biztanleriaren bi herenak bizi diren, ezezkoak irabazi zuen, botoen %74 bilduz. Kanakak nagusi diren beste bi probintzietan baietza nagusitu zen -Iparraldeko Probintzian %76 eta Leialtasun Uharteetan %82 lortuz-. Klase arrakala ere begi bistakoa izan zen: hegoaldean dira klase altukoak, hots, caldocheen artean. Duela bi urte abstenitu zen %19ari begira dira baietzaren zein ezezkoaren aldekoak. Bi aldeak dira kanpaina sutsua eramaten ari. Baietzak irabaziz gero, “hiru urteko trantsizioa” eskatua du FLNKS-k “Estatu kultur-anitza, demokratiko eta laikoa” osatzeko gisan. Ezetzak irabaziz gero, beste erreferendum bat antolatuko dute bi urte barne. ●

MICKAEL FORREST

FLNKS-KO KIDEA, KANPO-HARREMANEN ARDURADUNA

“Jendeak ulertu du kanpaina ez dela bakarrik politikarien kontu bat”

Goizetik arratsera, baietzaren aldeko kanpaina eramaten dabil Mickael Forrest FLNKSko kidea, Kanakian gaindi zein nazioartean –2018an Euskal Herrian egon zen–. Agenda betea ukan arren, tartetxo bat hartu du gure galderei erantzuteko. Itxaropentsu da: FLNKS koalizio independentista historikoaz gain, aldi honetan beste hainbat egitura ere badabiltzalako baietzaren alde.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Erreferendumerako egun gutxi falta direla, zein giro da Kanakian?

Tentsioa sendi da, arrazoi askorengatik. Tartean, Frantziako Gobernuak eskua sartzen duelako herri barneko aferetan, izan nikelaren ustiapenari ala bozkatzaileen zerrendari dagokienez. Koronabirusaren biharamun honetan egunerokoa goibela dugu, ekonomia zailtasunetan da; baina aldi berean pandemia horrek argiki erakusten digu independentzia dugula onerantz egiteko bide bakarra.

Aldekoen eta aurkakoen artean zer nolako giro duzue?

Noumeako akordioak bizi izan zituztenak kanpaina egiten dabilta. Eztabaida badago plazan eta bi proiektuak dira parez pare jarriak. Hala eta guztiz ere, desoreka handia dago tokiko komunikabideetan. Egunkari bakarra dugu eta ezetzaren aldekoek dute honen kontrola; noski, horrek ondorioak ditu kanpaina garaian. Hor ere Paristik datoz tentsio batzuk –tartean, Frantziako bandera eta ereserkia erabiltzeko baimena eman izana, bozka-araudiak hori debekatu arren–.

2018an ezetza gailendu zen, baina, baietzak %43,3 bildu izanak sorpresa eragin zuen. Aldi honetan zer espero duzue?

Independentzia! Baikor gara, beste hainbat egiturak ere egin duelako baietzaren alde kanpainan. Pentsa, Eliza ere baietza bozkatzearen alde agertu da. Iruditzen zait jendeak ulertu duela kanpaina ez



dela bakarrik politikarien kontu bat, eta guztien esku dela kanpaina egitea bere familian, auzoan, leinuan, eta abarretan.

1980. hamarkadako gatazka politiko bortitzaren emaitza da erreferenduma. Belaunaldi gazteak ezagutzen ote du zuen historia?

Lan handia dago egiteko historiaren transmisioari dagokionez. Hala ere, errango nuke FLNKSko gazteriak informazio eta kontzientziazio lan hori egiten duela.

Kanpainan beldurra erabiltzen ari dira ezetzaren aldekoak.

Beldur horrek erosotasun kolonialean

du oinarria. Baina haratago joan eta gure herriaren benetako erronkei begiratu behar diegu: kapitalen ihesari edo baliabide naturalen ustiaketari, adibidez.

Erreferendumaz gain, nola doa zuen mugimendu independentista?

Gure herriaren askatasunaren eta justiziaren aldeko borroka da hau. Kontsumo eredua galdekatzera eramán gaitu koronabirusaren krisiak eta bai, gure independentismoa bestelako jendarte baten alde eta klima larrialdiaren aurka dago argiki. Egutero ditugu gogoan herriaren alde borrokatu ziren gure arbasoak, baina aldi berean, biharko belaunaldiaren tzat gabiltza. ●



Errausketak atmosferara isurtzen du hondakinen %80 eta %20 lurrera”

Gorka Bueno EHUko Ingeniaritza Eskolako irakaslea da Bilbon, eta energia berriztagarrietan eta teknologia fotovoltaiakoan aditua. Garraioa eta hondakinen kudeaketa eta tratamendua ere lantzen ditu. Zabortegiak, kudeaketa ereduak, erraustegiak, Zaldibar eta beste hainbat gairen gainean egin dugu berba elkarrizketan.

JOAN B. MINER ETA NEREA ISPIZUA / ALDA ALDA

Gorka, zaborrak “jaten gaitu”?

Esango nuke arazo larria dugula hondakinekin. Asko eta mota askotakoak sortzen ditugu. EAEn bakarrik, urtero ia 6 milioi tona hondakin solido dira. Horietatik erdiak baino gehiago, 3 milioi, industriakoak dira, eta horietatik %40 zabortegietara bideratzen dira. Gero, 1,2 milioi hiri-hondakin daude, horietatik heren batek zabortegian amaitzen du eta beste %20 erraustu egiten da, eta, beraz, atmosferara doa. Beste milioi luze bat eraispenetik eta eraikuntzatik dator: neurri handi batean tratatu eta birziklatu egin daiteke, baina erdiak zabortegietan bukatzen du. Eta gero, 300.000 tona hondakin arriskutsu ditugu. Horiek, neurri batean, birziklatu egiten dira; baina zati bat zabortegietara joaten da, eta beste bat, azkenik, EAetik kanpo doa, leku berezietan tratatu edo isuri behar delako. Laburbilduz, guztiaren ia %40k zabortegietan amaitzen du eta 200.000 tona

airera isurtzen dira erraustegien bidez. Eta gainera, ezin dugu ahaztu erabiltzen eta zikintzen dugun ur guztia, itsasoan amaitzen dena.

Asko azpimarratzen da herritarren erantzukizuna zaborraz hitz egiten denean, baina aipatu duzun arabera, gehiena industria-hondakinak dira.

Industria-sektorea da hondakin-sortzaille nagusia. Eta hondakin horietako asko obra publikotik eta eraikuntzatik datoz. Herritarren erantzukizuna guztiz beharrezkoa da hondakinak murrizteko, baina kasu askotan produktu asko diseinatuta eta fabrikatuta dauden moduagatik ere lotuta gaude. Beraz, ekoizpen-sektoreak ere erantzukizuna du; eta, jakina, administrazioek, kontsumoarekin lotutako gai asko arautu beharko lituzkete, hasi plastikozko poltsekin eta produktuak errazago konpontzeko eta birziklatzeko muntaiaraino.

Hala eta guztiz ere, gizarteak ez al du uste gaur egun hondakinak askoz hobeto kudeatzen ditugula?

Baliteke. Argi dago, duela 50 urteko egoerarekin konparatuta, egoerak hobera egin du. Orduan, herrialdea legez kanpoko zabortegiz beteta zegoen, eta ibaia... Bilboko itsasadarra seguruenik Euskadiko zabortegirik handiena izango zen. Hobetu egin zen administrazioak gai horietan sartu zirelako: isurketak arautu ziren; industriari kontrol handiagoa ezarri zitzaion; eta zabortegi kontrolatuak eraiki ziren, ingurumen-baimenekin arautuak. Horrek guztiak hobekuntza ekarri du.

Horrek esan nahi du bide onetik goazela?

Nik ez nuke hainbeste esango. Lortutako hobekuntza hor dago, baina ez da nahikoa. Eta gaur egun egiturazko aldaketak egin behar ditugu, ez zuzenketa txikiak.



Eta zein da egiturazko arazorik handiena?

Nire ustez oinarrizko arazo bat dago, ideologikoa: nik "karma" neoliberalak deitzen dudana hori nagusi dela gure kudeatzaileen artean, eta horren arabera enpresa pribatuari "egiten utzi behar zaio". "Arduratsuak" direla pentsatzeaz gain, esaten da haiek dakitela zer egin eta nola. Merkatua eta enpresa pribatuarekiko fedea dute. Merkatuak ondo funtzionatzen duela pentsatzeaz gain, uste dute merkatuak berak beharrezko pizgarriak sortzen dituela ingurumenaren, segurtasunaren eta osasunaren arloetan. Arazoak konpontzen dituen merkatu autorregulatuaren mitoa da. Fede horrek –hori sinesmen hutsa baita– utzikeria eta gehiegizko konfiantza dakartza, eta hori da dagoena Zaldibarkoa bezalako hondamendien oinarrian.

Uste okerrekin, beraz, praktika

txarrak sortzen dituzte...

Noski. Hainbat enpresak ez ditu gauzak behar bezala egiten horretara behartuak ez badira, eta beraz, haien praxi txarra dago, eta horrez gain, administrazioaren praxi txarra ere ematen da, kontrolatzen eta zigortzen ez duelako... Gainera, bezero- eta familia-konexioak daude enpresetan eta administrazioan dauden artean. Esan bezala, hondakinen kudeaketan eta tratamenduan aurrerapausoak eman dira, baina interes-gurutzaketak ere gertatu dira, batzuk agian legitimoak, baina beste batzuk ez: enpresa pribatuaren, administrazioaren eta alderdi politikoaren arteko gurutzaketak. Prozesu horietan beti dago lagunkeriarako joera eta praktika ustelak edo arduragabeak izateko arriskua... Zaldibarkoa oso gogorra izan da. Baina are okerragoa da kontuan hartzen badugu neurri erradikalak hartu ezean berriro gerta daitekeela.

Hondakinak kudeatzeko egungo sistemek ba al dute alternatibarik? Zer da ekonomia zirkularra?

Ekonomia zirkularra sistema sozioproduktibo bat da, hondakinak lurrera, atmosferara edo uretara isurtzen ez dituen, beste prozesu batzuen intsumo gisa erabiltzen dituelako. Horrek eraldaketa eskatzen du, metamorfosia; materialen zikloak itxiko dituzten berberak eta birziklatze prozesuak bilatzea; hondakinak sortuko ez duten prozesuak eta material alternatiboak bilatzea; edo birziklatu daitezkeen beste hondakin batzuk sortzea. Jakina, kasu batzuetan logika zirkularrak ekoizpen-jardueran jakin batzuk etetea eskatuko du.

Horrek eskatzen du gure bizi-eremuaren alderdi asko birformulatzea, besteak beste, dugun neurri gaitortasuna; ekonomia askoz lokalagoa sustatzea, maila globalean materialen mugimendua txikiagoa izan dadin;

erregai fosilen kontsumoa eta garraioa ahalik eta gehien murriztea. Aldaketa oso sakona da, trantsizio ekologikoa deitu ohi duguna baino harago doana.

Nork gidatu behar ditu aldaketa horiek?

Guztioi dagokigu: eragileei, erakundeek, herritarrei... baina aldaketak erakundeek eta gobernuek arautu behar dituzte. Zientziak diotenari ere erreparatu behar zaio. Gustatu ala ez, errealtateak eta naturak zientziak aztertzen dituen legeen arabera funtzionatzen dute, eta ez guk eztabaidatu eta alda ditzakegun legeen arabera. Natura ez da demokratikoa, nolabait esateko. Horrek ez du esan nahi politikak zientziaren eranskin hutsa izan behar duenik, baina gauza batzuk modu batekoak dira eta egokitu egin behar gara, politikoki kudeatzea zaila bada ere. Eta arduradun politikoei premia horren berri eman behar diete herritarrei.

Industria-hondakinak itzuliz. Zer iritzi duzu ekotasari buruz? Arazoaren konponbidea al da?

Ekotasak eta ingurumen-zergak politika fiskaleko tresnen parte dira, eta ekonomia zirkularra bultzatzeko eta gure sistema sozioproduktiboa jasangarriagoa bihurtzeko tresna baliagarriak dira. Azken batean, kapitalak beti kanpora atera nahi dituen kostuak barneratzeko balio dute. Gaur egun oso merke ateratzen da hondakinak zabortegi batera isurtzea edo erraustegira eramatea, kanonak oso txikiak direlako. Eta horrek ez du estaltzen hondakinak kudeatzeko jarduera horien ondoriozko ingurumen, gizarte eta ekonomia kostua. Ekotasak, neurri batean, kalteak orekatzen saiatzen dira, baina, ikuspegi integral baten baitan, beste neurri askorekin osatu behar diren tresnak dira. Kontrol kontua da. Argi badugu jarduera jakin batzuek inpaktu eta kostu onartezina dutela, neurrigabea, administrazioak jarduera hori arautu behar du, mugatu edo debekatu. Jarduera horiei alternatibak bilatu behar dizkie.

Etxean egunero zenbat zabor sortzen dugun jakiteko daturik ba al dugu?

Etxeetan ia kilogramo bat sortzen da pertsonako eta eguneko, baina ia %40 hondakin organikoa da, eta nahastuta biltzen da. EAEn, gainera, egunero 800 tona hondakin organiko sortzen dira,

eta 600 tonak zabortegietan eta erraustegietan amaitzen dute. Hau astakeria bat da, frakzio organikoa bananduta bilduko balitz, honekin konposta sortu eta ongarri bezala erabili ahal izango litzatekeelako. Hori da bidea: posible den neurrian hondakin mota desberdinak berezita biltzea, horiek baliozko beste material batzuk bihurtzeko.

Zer birziklatze-tasa ditugu?

Hiri-hondakin birziklapena ez da %50era iristen, baina Europako araudiak kopuru hori 2020a baino lehen gaintzera behartzen gaitu. Hala ere, Europa mailako hurrengo urteetarako helburuak harago doaz. Argi dago ez ditugula helburu horiek beteko. Arrazoi nagusia da hondakinak berezita gabe biltzen direla, instalazio handietan, batez ere erraustera eta zabortegira bideratuta. Hori horrela da hondakinak kudeaketa enpresa handien esku utzi delako, azpiegitura handietara bideratuta, eskulan gutxirekin eta kapital-inbertsio handiekin. Diseinu hori ez da ondo egokitzen materialen balorizazioa eta birziklatzearen helburuetara. Bai, birziklatzen da, baina hobetzeko tarte itzela dago, eta horrek kudeaketa eta tratamendu-sistema aldatzea eskatzen du. Atmosferara isurtzea lehenetsi da, berezita gabe bildutako hondakinak erraustuta.

Bizkaiko Foru Aldundiak, zehazki, hiri-hondakinei buruzko datuak askotan manipulatu ditu. 2015ean, esaterako, birziklatze-tasa %67 baino handiagoa zela iragarri zuen, baina benetan %40 baino txikiagoa zen. Oraindik ere, kalkuluan sartu behar ez liratekeen obra-hondakin asko birziklatutako hondakin gisa zenbatzen ditu.

Hondakin guztiak proportzio berean birziklatzen dira?

Aldeak daude hondakin motaren arabera. Industria-hondakin kasuan, birziklapena %50etik gorakoa da. Birziklapenak askoz handiagoa izan beharko luke erakuntzan, siderurgian eta papergintzan. Sortutako industria-hondakin %40k Zaldibarko zabortegietan amaitzen du. Enpresei merkeagoa egiten zaie isurketa-tasa ordaintzea eta ahaztea prozesu alternatiboak bilatzea baino.

Beraz, badirudi hondakinak biltzeko moduak asko baldintzatzen duela hondakinak kudeaketa. Nora doa egunero sortzen dugun zaborra?

Egunero kudeaketa eredian, hondakinak nahastuta biltzea eta berezita gabe tratatzea lehenesten da, zaborra instalazio handien bidez lurzorura (zabortegietara) eta atmosferara (erraustegietara) isurtzea. Industria-hondakinak zabortegian amaitzen dute batez ere, eta hiri-hondakinak zabortegietan eta atmosferan. Baina horren aurretik, hiri-hondakin kasuan, birziklatzen ez duten aurretratamendu-plantetatik pasatzen dira. Bizkaiko TMB plantan (tratamendu mekaniko-biologikoa), adibidez, %7 baino gutxiago birziklatzen da, eta gainerakoa, zabortegira eta atmosferara doa.

Hirigune txikietan, atez atekoa bideragarria da, eta aparte-ko biltze-tasa bereziki ahalbidetzen ditu, "gainerakoa" zatia asko murriztuz. Hirigune handietan txartel bidezko sarbide kontrolatua duten edukiontzia erabil daitezke. Gakoa da hondakinak egunero kontrolik gabe nahastuta botatzeko aukera ematen duten edukiontzia kentzea.

Hori da indartu eta bultzatu behar den kudeaketa eredu. Arazoa da eredu konplexuagoa dela, enpresei eta administrazioari antolaketa handia eskatzen diena, askoz eragile gehiago inplikatu dituen, eta batez ere, orain hondakinekin diru gehien irabazten ari direnak alboratzen dituen.

Zer esan dezakezu Hego Euskal Herrian dauden zabortegi eta erraustegiez?

Hiri hondakinak errausteko bi planta daude gaur egun Euskal Herrian; Zabalgarbi Bizkaian, eta Zubietako planta Gipuzkoan. Hondakin horiek hondakin solido bat sortzen dute, zabortegian amaitzen dena, zepak. EAEn dozena bat zabortegi baino gehiago daude aktibo; handiena Zaldibarko zen. Zaldibarko tragediak zabortegian amaitzen duten hondakin gehienak industriako eta erakuntzako hondakinak direla erakutsi du. Hondamendia gertatu eta aste batzuetara, Eusko Jaurlaritzak neurriak jarri zituen abian industria-sektore garran-



Zubietako eta Zabalgarbiko erraustegietako konexio publiko-pribatuek liburu baterako emango lukete”



tzitsuenek (eraikuntza, paper-fabrikak, siderurgia) orain arte zabortegietara doazen urteko 700.000 tona balorizatzeko. Zergatik ez da lehenago egin? Enpresentzat erosoagoa eta merkeagoa zelako.

Zabortege publiko eta pribatuak daude. Sistema publiko bat egon beharko litzateke kontrol handiagoa izateko?

Bizkaiko dozena bat zabortegietatik bi baino (Artigas eta Jata) ez dira Garbikerrenak, hau da, publikoak. Araban, Gardelegi Gasteizko Udalarena da; Gipuzkoan, Epele eta Aizmendi komunitateenak dira, eta hirugarrena Mutiloa, pribatua eta ixtekotan dagoena. Igorren orain aktibo dagoena kasu bitxia da: Garbikerrek eraiki zuen, ondoren enpresa pribatu bati emateko. Zubietako eta Zabalgarbiko erraustegietako konexio publiko-pribatuak liburu baterako emango lukete.

Hondakinak kudeatzeko sistema publiko integrala demokratikoagoa eta

gardenagoa litzateke. Dena den, egungo kudeaketa-sistema ere ez da pribatua; izan ere, ingurumen eta gizarte-kostuen zati handi bat barneratzen ez denez, enpresen kostu horiek azkenean sistema publikoaren esku geratzen dira. Hor dugu Zaldibar: noizbait jakin beharko dugu hondamendiaren kudeaketak zer kostu duen, eta nork estaltzen duen.

Baina, posible al da zabortegiekin amaitzea?

Oso zaila da, beti geratuko baita errefusa zati txiki bat, nonbait gorde beharko dena. Baina zati txiki hori minimizatu egin daiteke; gakoa da hondakinak jasotzerakoan ondo bereiztea eta material bakoitzarentzat tratamendu zehatza bilatzea.

Errausketa ez da alternatiba baliozkoa: oso kutsagarriak diren substantziak isurtzen dira, hala nola dioxinak eta furanoak, han bertan sintetizatuak. Hondakindegian amaitzen diren hon-

dakinak ere sortzen dira, zepak. Eta hondakin solido arriskutsuak, errauskak adibidez.

Zergatik esaten zaio balorizazio energetikoa erraustegien ordez?

Iruzur bat da. Errausketak ez ditu materialen zikloak ixten: erraustutakoaren %80 atmosferara isurtzen du eta %20 lurrera; oso gai kutsagarriak sortzen ditu (dioxinak, furanoak eta beste konposatu arriskutsu batzuk). Elektrizitatea sortzen du, egia da, baina oso zikina da. Aukera hobekak daude. Eta, kasu batzuetan, ezta hori ere: Zabalgarbik 2006an eta 2007ko denbora-epe batean 300.000 tona hondakin erraustu zituen balorizazio energetikorik gabe, eta administrazioak primeran zekien hala egin zela. Hala ere, bederatzi milioi euroko primak kobratu ahal izan zituen hondakin bidez elektrizitatea sortzeagatik, baina hori guztiz ezinezkoa zen, hamazazpi hilabete horietan, lurrunturbina matxuraturata zegoelako. ●

'TXISTU', 1927

EUSKARAZKO

LEHEN KOMIKIA

Argia aldizkariarekin batera argitaratu zen *Txistu*, hamabostero. Abdon Gonzalez de Alaizaren eta Madrilen ari ziren unibertsitate ikasle zenbaiten eskutik etorri zen. Hamasei zenbaki kaleratu eta utzi zioten publikatzeari, behar besteko harpidedunik ez lortuta.

 MIEL A. ELUSTONDO

Iragan mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan goia jo zuen euskarazko prentsak. Esaterako, 1919-1921 artean hamabost aldizkari sortu ziren bateko eta besteko euskal herrietan. Zehatz esatera, 1922an euskara hutsezko hamar aldizkari argitaratu ziren: *Jaungoiko-Zale*, *Zeruko Argia*, *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Irugarrengo Irakaslea*, *San Francesen Deia*, *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Euzko Deya*, *Fedearen Propagacioneco Urtecaria*, *Eskualduna* eta *Argia*. Azken biak ez beste guztiak, erlijio aldizkariak ziren. Hari berean, 1930-32an hamalau aldizkari eta almanaka bat publikatzen hasi ziren han eta hemen. Inondik ere, 30eko hamarkadan kokatu ohi da euskal kazetagitzaileen boom-a Hego Euskal Herrian, hau da, Primo de Riveraren diktadura ondoko espainiar Errepublikara garaian.

Lehen Mundu Gerra eta gero, 1914ko Gerla Handiaren ondotik, gauza asko aldatu ziren nazioarte giroan. Europak nagusi izateari utzi eta AEBek hartu zuten protagonismoa, eta hala Europan nola munduko lau ertzetan, hiriek gero baino gero garrantzi handiagoa hartu zuten. Ez alferrik, bertan sortu ziren eguneroko prentsa idatzia eta aipuan darabiltza-

gun aldizkariak –baita irratia, komikia, zinema, kartelak eta beste–, eta bertan izan zituzten kontsumitzaile sail handienak ere. Hedabideek, 20ko hamarkada horretan, eta orobat 30ekoan, batik bat hiritarra zuten xede.

Euskal Herriaz den bezainbatean ere, hirietan jo zuen goia euskara hutsezko kazetaritzak, nahiz irakurle guztiz gehienak ordu arte nekazari izan. Haatik, bestelako irakurleen ehizari lotuko zitzaion boom-aren garaiko euskarazko prentsa: irakurle berria, irakurle hirikoa, irakurle “moderno”.

EUSKO IKASKUNTZA

Lehen Mundu Gerraren krisia eta gero, produktzioa suak eta keak hartu zuen eta Euskal Herriko ontziok berealdiko etekinak izan zituzten. Haien gerizan, berriz, bete-betean jardun zuten euskal geografian zehar barreiatuak ziren lantegi eta tailer txikiak. Giro gori bero horretan, kultura berpizteko eta autonomia politikoa izateko salda egosi zen.


1917an, jeltzaleek Eusko Ikaskuntza eratzeke proposamena egin zuten Bizkaiko diputazioan, eta 1918ko udakoa dugu Eusko Ikaskuntzaren lehen batzarra Oñatin. Haren sabeletik sortuko zen,

ondoko urtean, Euskaltzaindia. Alabaina, lehenago ere baziren, Hegoan nahiz Iparrean, euskara eta euskal kultura sustatzeko elkarteak. Horra, adibidez, Nafarroako Euskara Elkargoa, Donostiako Euskal Esnalea eta Toribio Alzagaren Academia de la Lengua y Declamación Euskara; Eskualtzaleen Biltzarra Ipar Euskal Herrian... Boom-a gertatu baino lehen ere baziren aldizkariak. Horra, esaterako, *Euzkadi* jeltzalea, Azkueren *Euskalduna*, eta erlijio eta nekazaritzako hainbat agerkarirekin batera, aldizkari berezituagoak, nola baitziren Eusko Ikaskuntzak bultzaturiko hirurak: *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, *Anuario de Eusko Folklore*, eta *RIEV*.

Eusko Ikaskuntzak, bestalde, ordezkari bana ukan zuen Madrileko Euskal Etxean eta Bartzelonan, eta, hain zuzen, Madriletik heldu zen *Argia* aldizkari euskara hutsezko lehen komikiaren proiektua.






'ARGIA'

Dakikegunez, 1921eko apirilaren 21ekoa da *Argia* aldizkariaren lehenbiziko zenbakia, Donostian argitaratua, kaputxinoen ekimenez. Sei euskaltzale izan ziren eragile, hiruna apaiz eta lego.





Txistu

JOXE GAIZTO TA ZAPEL ALUNDI



JOLASAK

Joxe Kalku ta Permin Biuri'ren ibilaldi izugarriak



1927KO URTARRILEAN

argitaratu zen euskarazko komikiaren lehen zenbakia. Abdon Gonzalez de Alaiza jo izan da komiki-aldizkariaren egileztat.

"Zenbat eta zenbat neska-mutiko ez ditugu beren eskuetan 'TBO' ta 'Pepito' ['Pulgarcito' esan nahiko zukeen] ta beste onelako ingitxoekin ikusten? Ba oraindano erdal-ingitxoak ibilli dituzten bezela, aurrera umeentzako euskal ingitxo polit bat izango dutela jakiteak nor poztuko ez du?"

Gregorio Muxika

"Madrid'tik dei bat etorri zaigu, orde. An bizi diran arkitekto euskaldun gazte batzuek eta an bertan arkitekto-ikaskizunetan dabiltzan euskaldun iaio batzuek irrintzi zorrotza bota digute. 'ARGIA egiten dezutenak -esan digute-, gauzak ondo egiten badakizute. Euskalerriko nexka eta mutiltxoentzat aldizkingi atsegin bat zer dala-ta ez dezute egiten?"

Gregorio Muxika

Batetik, Bitor Garitaonaindia *Garbi* eta Jesus Karrera josulagunak, eta Ramon Intzagarai *Elurmendi* genituzke. Bestetik, Gregorio Muxika *Jeme*, Ander Artzeluz *Luzeaz* eta Antonio Lizarraga. Alabaina, tartean ziren beste bi lagun ere, aipatu derrigorrak: Ambrosio Zatarain, dirua jarri ez ezik, "Nekazaritza" atalaz arduratu baitzen, eta Rikardo Leizaola, Donostiako Garibai kaleko Eneko Deuna'ren *irarkolaren* (inprimategiaren) jabea.

Intzagarai eta Muxika izan ziren, hasiera-hasieratik eta ororen gainetik, aldizkariaren ahots eta idazle, eta horren erakusgarri zuzen da aldizkariaren lehen orrialdeko "Astea" atala.

Primo de Riveraren diktaturapean ere, arrakasta izan zuen astekariak. Eta, nork daki, lainezaturik beharbada, 1924an batzaldi edo lehiketak egiten hasi ziren, eta, hitzez hitz, "sariketa ume-txoentzat". Ondoko urtean, *Argia* "Jolasak" atala argitaratzeari lotu zitzaion azkeneko orrialdean. Irakurleak zituen helburu, eta, besteak beste, haurrak xede. 1926an "Txistu'ren txokoa" publikatzen hasi ziren *Argia*-n, eta, urte horretan bertan, euskarazko komiki baten asmoa plazaratu zuten; alegia, ondoko urtean argitaratuko zen *Txistu*.

'TXISTU'

20ko hamarkadan, esan nahi baita, euskarazko aldizkari pila hura publikatzen ari ziren garaitsuan, Bartzelonan (Herrialde Katalanak) lau komiki-aldizkari, behintzat, sortu zituzten: *Dominguín* (1915), *TBO* (1917), *Charlot* (1919) eta *Pulgarcito* (1921). Sua bezela zabaldu ziren han eta hemen eta Hego Euskal Herrira heltzen zirela ez da dudarik, Gregorio Muxikak 1923ko maiatzaren 13ko *Argia*-ren 108. zenbakian idatziari jarraikiz dakigunez: "Zenbat eta zenbat neska-mutiko ez ditugu beren eskuetan *TBO* ta *Pepito* [*Pulgarcito* esan nahiko zukeen] ta beste onelako ingitxoekin ikusten? Ba oraindano erdal-ingitxoak ibilli dituzten bezela, aurrera umeentzako euskal ingitxo polit bat izango dutela jakiteak nor poztuko ez du? Euskerarentzat aurrerapen aundi-aundia ez ote da umeak, beren zaletasun bizienetako baten bitartez euskaltzaletzea? Auxe da, ba, Aita Kaputxinoak darabilkiten asmoa ta poz-pozik zorionduaz, erbesteko ingirik politena baño politagoa izatea opa diogu *Umeentzako euskal ingitxoa*'ri".

Asmoa ez zen berehalakoan haragitu. 1926ko urtarrilaren 10ean, arestian

aipatu dugun "Txistu'ren txokoa" argitaratzen hasi zen *Argia*, nahiz maiztasun jakinik gabe. Pertsonaia baten izena zen Txistu, eta atal hartan denbora-pasak, hitz-nahasteak, gurutzegramak eta beste ziren ageri.

MADRILGO EUSKALDUNAK

Urte berean, 1926ko apirilaren 18ko 261. zenbakian, neska-mutikoentzako aldizkariari ari da Gregorio Muxika, "Guziok txistulari" tituluaren azpian: "Umientzako aldizkari erreze, polit, alai onezaz, zenbat aldiz aritu ote gera berriketan!... Bear-bearrezkoa dala uste izan degu beti. Nolakoa izan bearko lukean ere argi ikusten genuen. Ainbeste orrialde... emen xantuak, emen ipuiak, emen izkirimiriak, txokuen asmaketak. Ala ere ez genuen egiten. Zer zala-ta? ARGIA'k berak ere lana pranko ematen zigulako. Buru lana ta txanpon-lana. (...) Madrid'tik dei bat etorri zaigu, orde. An bizi diran arkitekto euskaldun gazte batzuek eta an bertan arkitekto-ikaskizunetan dabiltzan euskaldun iaio batzuek irrintzi zorrotza bota digute. 'ARGIA egiten dezutenak -esan digute-, gauzak ondo egiten badakizute. Euskalerriko nexka eta mutiltxoentzat aldizkingi atsegin bat zer dala-ta ez dezute egiten? Euskeraren alde egin liteken lanik ederrena orixe izango litzake. Aurrak atseginduaz euskalduntzea... ja zer lan eder ta txalogarria! Zer dala-ta lan oni ez diozute ekiten? Guk lagunduko dizutegu!"

Madriletik heldu zitzairen berri ona, beraz. Arkitekto euskaldunak, eta arkitektura ikasten ari zirenak izango zituzten laguntzaile fidel. Gregorio Muxika ari zaigu: "Laguntza ori egizkua dala adierazteko, aldizkingi berriaren lau zenbaki egiteko aña gai bidaldu digute. Xantu politikak, ederki baño ederkiago egiñak, ipuitxo parreragilleak, izkirimiriak... Aiek guziak ikusitakoan, bene-benetan poztu giñan, eta buruan generabilgun asmoa aurrera eramatea erabaki genuen. Aupa, laister jaioko dan TXISTU pozgarria! (...) Baña... baña... Zer dirua? TXISTU guk nai bezelakoa jaioko ta azi dedin, bi milla arpidedun bear omen dira (...) Guziok arpidedun, guziok TXISTU zale, guziok TXISTU'leri! Zer mila? Baita bost ere!". Bazekiten nolako aldizkingia nahi zuten: hamabostean behingo maiztasuna izango zuen eta zortzi orrialdekoa izango zen; horietarik bospasei, marrazkidunak; gainerakoak, asmakizun,

'Argia'-n 'Txistu'-ren argitalpena behin eta berriz eta askotan iragarririk ere, ezin komikia plazaratu. Javier Diaz Noci irakasle eta garaiko euskarazko prentsaren aztertzailearen arabera, dirurik eza izan zen atzeratzearen arrazoi nagusia

irakurgai eta bestelako. Neurritz, luzera-zabaleran *Argia*-ren tamainaren laurdena. Salneurria, hogeizentimo. Urtebeteko harpidetza, hau da, hogeita sei zenbaki, bost pezeta, nahiz *Argia*-ren harpidedunek beherapena luketen, hau da, 4,50 pezeta urtean. Gainera, harpidedunen artean sariak banatzeko asmoa zuten. "Ama euskerak laztanduko zaitu!", zioen *Txistu*-ren harpidetza karpainak. Hala ere, harpidetzak ez ziren behar beste etorri, aldizkingiak 7.000 irakurle zituen garaian ere, eta *Txistu* argitaratzea atzeratu egin zen. Ateratzeko zorian zela agindu zuten ekainean.

Ateratzeko zorian zela, uztailean.

Oñatin eta Erreterian *Txistu* publikatzen laguntzeko talde bana osatu zuten. "¡Ori da, euskaldunak, ori, TXISTU benetan maitatzea! ¡Beste errietan ere onenbeste ez ote degu iritxiko! Lagun on askoak baditugu ba. ¡Ja, anaiak, TXISTU

LASTER IRTENGO DA ta atek zabal arkituko al ditu gure etxe guzietan, gaurko txikiak bigar euskera alde guk baño askoz geiago egin dezaten!"

Ateratzeko zorian, omen, abuztuan. Ordukoa da Xenpelarren bertsoa: "Asko ta asko ikusten degu / iragarkia ARGIA'n / seme polit bat nola dagoen / orain jaio bearrian / Donostia'ko uri maitian / eta Garibai kalian: / pozez beterik gaude artze / bistatzen zeradenian".

Bitartean, ordea, *Txistu* atzeratu eta atzeratu ari zen...

ABDON GONZALEZ DE ALAIZA

Argia-n *Txistu*-ren argitalpena behin eta berriz eta askotan iragarririk ere, ezin komikia plazaratu. Javier Diaz Noci irakasle eta garaiko euskarazko prentsaren aztertzailearen arabera, dirurik eza izan zen atzeratzearen arrazoi nagusia. "Euskaldun aberatsen laguntza" ere eskatu zuten *Argia*-koek, eta jaso ere bai halako batean, 1926ko uztailearen 4ko *Argia*-ren zenbakian irakurtzen ahal denez: "Lenengo urterako amar arpide, bigarren urterako sei ta irugarren urterako iru ordaindu dizkigu, ta ez or oxta-oxta, ez, gañezka baizik. Onelako laguntza asko izan bagenu aspaldi irtengo zan oraindik jaio bidean dagon aldizkingi polita". Diru gehiago ere lortu zuten harrezkero, irailaren 26ko zenbakian irakurtzen denez: 100 pezeta hartu zituzten "Garteiz" izeneko saria banatzeko. Ondoko hilabeteetan, urrian, beste diru-laguntza bat ere jaso zuten *Argia*-n, 50 pezetakoa, "Alaiza saria" antolatuzko, Abdon Gonzalez de Alaiza Azazetaren izenean, alegia, zeina urte horretako uztailearen 15ean hil baitzen.

Diru gabeziarekin batera, Gonzalez de Alaizaren heriotzak atzerarazi zuen *Txistu*-ren jaiotza. Ez alferrik, 1927ko urtarrilean, *Txistu*-ren lehen zenbakia




'TXISTU', JAVIER DIAZ NOCIEN ARABERA

"Testua eta marrazkiak osagai dira *Txistu*-n, ezin genezake bata bestea gabe ulertu. *Balloon* edo *globorik* ez agertu arren, *Txistu*-n hitzak marrazkien azpian kokatzen baitziren, didaskalietan, erabat komikia zen. Egitura narratiboa xehea zuen, oso: ipuintxo moduko bat baino ez zen haren edukia, azkeneko ikaskizun eta guzti, kanpoko kontalari batek kontatua (...) Horrek ez du esan nahi, alabaina, *Txistu* mespretxatu behar dugunik. Lehenengo euskal komikia sortzeko asmoak hainbat neke eta lan eragin zituen. Bestalde, sortzaileen helburua euskara hedatzea zen. Eta Espainiako Estatuan egiten ziren gainerako komikiak ere *Txistu*-ren antzekoak ziren".

argitaratzearekin batera, proiektuaren "sustatzaile beroena"-ren heriotzari egotzi zioten atzerapena. Aipu horren bidez jakin dugu Gonzalez de Alaiza *Txistu*-ren bultzatzaileetan zela. Haren izenik baizik ez dugu ezagutzen.

Abdon Gonzalez de Alaiza Azazeta (Musitu, 1876 - 1926), iragan mendearren lehen laurdenean Madrilen egosi ohi ziren euskal gauza guztien piztaile nagusia, oraindik orain arte euskarazko lehen komiki-aldizkari *Txistu*-ren egiletzat joa izan dena... ●

Sifilisaren akuriak, eta ez pertsonak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Tuskegee (Alabama, AEB), 1932. Sifilisaren aurkako tratamenduak oso arriskutsuak, toxikoak eta eragin-kortasun txikikoak ziren garaian, AEBko Osasun Publikoko Zerbitzuak (PHS) esperimentu bat jarri zuen abian 600 subjektorengan gaixotasun benereoren eboluzioa aztertzeko. 600 horietatik, guztiak gizonezkoak, 399k ordurako sifilisa zeukaten, eta gaixorik ez zeuden 201 hartu zituzten, kontrol talde modura. Printzipioz, bi parteentzat zen onuragarria tratua. Medikuek sifilisari buruz gehiago jakiteko aukera izango zuten, eta gaixoei doako tratamendua, klinikara joateko doako garraraioa, otorduak eta, hilez gero, ehorzketasegurua emango zizkieten.

Baina gizon haiei ez zieten diagnostikoa garbi adierazi: “odol txarra” zutela esan zieten, sifilisa, anemia, neke kronikoa eta beste gaixotasun batzuk izendatzeko erabiltzen zen termino lausoa. Ezta ikerlanaren benetako helburua ere: tratamendurik gabe sifilisaren progresio naturala zein zen eta heriotzeraino iristen zen behatzea.

1940ko hamarkadan penizilina bihurtu zen sifilisa tratatzeko sendagarri eraginkorra eta zabalduena, baina Tuskegeeko medikuek ez zieten giza akuriei horren berri eman. Eta, badaezpada, beste bideren batetik jakingo zuten beldur, penizilinarik inolaz ere ez hartzeko agindu zieten. Eta, hala, gaixoak plazebo hutsez tratatzen jarraitu zuten, ez tratatzen, alegia.



TUSKEGEEKO ESPERIMENTUKO SUBJEKTU BATI PLAZEBOA TXERTATZEN, 1971N.

Esperimentuak 40 urtez iraun zuen. Zenbaki ofizialen arabera, 399 parte-hartzaileetatik 28 sifilisa berak jota hil ziren, eta beste 100 hari lotutako konplikazioekin. Soilik 74 geratzen ziren bizirik. Gainera 40 gaixoren emazteak ere kutsatu ziren eta 19 haur gaitzarekin jaio ziren.

1966an Peter Buxtun osasun zerbitzuetako ikerlariak esperimentuaren etika ezaz kezkatuta zegoela jakinarazi zion Gaixotasunen Kontrolerako Zentroari (CDC). Haien erantzuna izan zen beharrezkoa zela ikerketa osatzea, hau da, gaixo guztiak hil arte luzatzea, autopsiak egin ahal izateko eta ondorio garbiak ateratzeko. Zortzi urtez ahalegindu zen Buxtun konponbidea osasungintzaren barruan bilatzen. Alferririk ari zela jabetu-

ta, 1972an prentsara jo zuen. Eskandalua berehala zabaldu zen eta esperimentua bertan behera geratu zen. Gerora, ikerketa biomedikoetan parte hartzen zuten pertsonak babesteko legeak indarrean jartzea eragin zuen horrek. Baina Tuskegeeko biktimentzat ez zen atzera bueltarik edo kalte-ordainik izan.

John Heller PHSko gaixotasun benereoren ataleko arduradunak, zera esan zuen esperimentua “zuritzeko” ahaleginean: “Gizon horien egoerak ez du eztabaida publikoa justifikatzen. Subjektuak ziren, ez pazienteak; material klinikoa ziren, ez pertsona gaixoak”.

600 parte-hartzaileak beltzak ziren, partzuer pobreak eta ia denak analfabetoak. Ez ziren pertsona. ●



Intsektu-uxagarria 200.000 urteko ohean

70.000 urte inguru zituen orain arte aurkitutako oherik zaharrenak. Baina Lyn Wadley arkeologoak duela 200.000 urteko ohea topatu du berriki Hego Afrikako Border Caven (argazkian, kobazuloaren sarrera). Lehenengo ohe horiek erosoak izan zitezten, belar-haxeak pilatzen zituzten. Azpian errauts-geruzak jartzen

zizkieten, tokia garbi atxikitzeke. Gainera, kanforondo egur errearen eta kanfor hostoen arrastoak ere topatu dituzte, eta landare hori intsektu-uxagarri moduan erabiltzen zen. Alegia, duela 200.000 urteko gizakiei ere eroso eta garbi lo egitea gustatzen zitzaie, eta biharamunean ez zuten ziztadaz josita esnatu nahi. ●

ARGIAREN EGUTEGIA 2021



DANI BLANCO

Gaurko egunez duela...

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Herri guztiek kontatzen dute bere historia. Egiten dute memoria. Euskal Herrian ere makina bat historia-liburu badugu. Baina iragana esplikatzeko modu mardulak, testu luze eta potoloak ezagutzen ditugu gehienok eta badira historia kontatzeko beste modu arinago batzuk ere. ARGIAK bilatu du bere formula eta 2020an arrakasta izan du. Molde zahar bat mantenduz eduki berriak sortu eta buelta bat eman diote urteroko egutegiari.

Egun bakoitzeko efemeride bat ari zai-gu eskaintzen egutegiko orri bakoitza. Herri honen hamaika borroka eta bizipen ekartzen ditu gogora, eta formulak memoria kolektiboan egindako ekarpena eta izandako onarpena ikusita, 2021eko egutegiak ere sistema berarekin jarraituko du.

Ordu askoko lana da, "urte osoan zehar jarri dugu txipa horretan" azaldu digu Lander Arbelaitz lan honen koordinatzaileak, baina emaitza ikusita "pozik" agertu da. "Irakurtzen ditugun liburu eta testuetatik ateratzen ditugu datak eta gertakizunak, datu-base batean apuntatzen ari gara denak eta dagoeneko 2021eko egutegia osatuta dugun bitartean, 2022koa ere be-

tetzeko moduan gara", dio. Xabier Burgaña da ondoren informazioari forma eman eta efemerideak modu arin eta laburrean idazten dituen.

Betiko egutegiari indarra ematea da lehen helburua, edukiz betetzea eta erakargarri egitea. Baina horretarako sortutako dokumentazio guztiari beste erabilera bat ematea ere lortu dute aurten eta askoz jende gehiagorengana iritsi da eguneroko dosia sare sozialetan. Ez dago euskaraz antzeko formularik eta balio izan du historia berreskuratzeko eta memoria egiteko.

Iraungitzen ez den informazioa da gainera, "gaurko egunez duela..." formulak 2020an irakurtzeko bezala balioko baitu 2060an irakurtzeko ere. Asmo berriak piztu zaizkie orain. Webgunean sortuko dute atal berezi bat efemerideak biltzeko, kontsultategi moduan erabili nahi duenarentzat, historia gustuko duenarentzat...

Datorren urtean badira urteurren borobil batzuk eta horiek emango diote azala takoari. Zeure kabuz deskubritzen utziko dizut, irakurle. Datorren urtean ere eguneroko eguneroko gozoki berri bat dasta dezazun. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

A rrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Euskara bultzatzeko eta artikuluak oso interesgarriak iruditzen zaizkidalako".

Gasteizko Ruben

"Euskaraz egiten duen lana oso garrantzitsua iruditzen zaidalako eta bere argitarapenen lanketa eta ildo atsegin ditudalako".

Urretxuko Mikel

"Kalitatezko edukiak sortzen dituelako, euskaraz eta euskal herrietan errelebanteak diren gaiak jorratuz. Erreportaiak eta monografikoak aipagarri".

Donostiako Varun

"Benetako kazetaritza egiten delako. Kritikoa, objektiboa eta ulerterraza".

Lemoako Iñigo

"Euskalduna naiz eta nire hizkuntza delako, euskal literatura eta informazioaren alde nagoelako".

Pasaiaiko Agozti

KALITATEZKO BARAZKIAK, ORAIN PIPERRAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zer bidaia egiten du gure hazkurririk?

Egunero jaten dugun janaria bizigarria al da? Elikatu egiten gaitu? Edo gorputzaren entretenimendu soila da? Bizia dakar ala ez? Bizia ala heriotza? Bizitzeko ala hiltzeko jaten dugu?

Guri bizia eman behar digun zerbait da, edo gure bizitza oinazealdi bihurtuko duen produktu komertzial bat? Gure biziari xarma, edo gatza eta piperra edo distira txertatuko al dio? Edo sendagiletarako bidea erakutsiko digu?

Edozein otordutan jaten dugun elikagai bakoitzak bere istorioa du. Noiz eta non sortutakoa da? Zein eskuk errein zuen hazia? Nork landatu zuen landaretxoa? Zein lurretan hazi da? Nolako paisaia ezagutu du? Eta nolako kultura bizi da paisaia horretan? Nolako jendea bizi da han? Zein hizkuntzatan bizi dira? Zer-nolako ohiturak dituzte?

Janari bakoitzak bere curriculum du. Hor dago bere kalitatea agerian. Bi aldagai begiratu izan dira benetako kalitatea neurtzeko: zenbat kilometrora ekoitzi duten elikagai hori, eta zenbat denbora eman duen jaso edo bildu zenetik zure eskuetara.

Gaur egun hirugarren aldagai bat ere hartzen da kontuan: nola ekoitzi dute? Nola horretan sartzen dira: norena da ustiapena? Zein eskuk lantzen dute? Zer-nolako baldintzatan lan egiten dute eta bizi dira nekazariak? Ingurumenaren zaintza, hau da, gu denon eta gure ondorengoen zaintza nolakoa da ustiapen horretan?

Hainbeste dago jakiteko jaki soil bakoitzetik! Ez da erraza. Bizimodua horrelaxe eraikitzen dugu, egunero, gerok ere ulertzen ez ditugun korapilo eta txibistak eginez. Ez dago bada galderak egitea bezalakorik argibideari ekiteko.

Has gaitezen errazenetik: alaba-semeei jaten ematen diedana hemengoa eta oraingoa al da? Garrantzitsuena bi



BI ALDAGAI BEGIRATU IZAN DIRA BENETAKO KALITATEA NEURTZEKO: ZENBAT KILOMETRORA EKOITZI DUTEN ELIKAGAI HORI, ETA ZENBAT DENBORA EMAN DUEN JASO EDO BILDU ZENETIK ZURE ESQUETARA. GAUR EGUN HIRUGARREN ALDAGAI BAT ERE HARTZEN DA KONTUAN: NOLA EKOITZI DUTE?

galderak batera egitea da. Ez du balio garaikoa izatea baina munduaren beste puntan sortua.

Nonbaitetik hasi behar eta has gaitezen barazkiekin. Etxean gehien erabiltzen eta eskubestutzen diren jakiak dira. Uraza hori, tomate hori, piper hori hemengoa eta sasoikoa al da? Gainontzean

ez jan. Hobe da gosea. Beste zerbait jan.

Hasteko, ikas dezagun sasoi edo garai bakoitzeko barazkiak zein diren. Tomatea abuztuan eta kardua urtarrilean. Orain piperrak. Bakoitza bere garaian hobe da, hobe zaigu, jan-sustantzia gehiago emango digu. Gure bizia bizi dadin. Piztu jaki jakin-mina. ●

ARRAPITZ FEDERAZIOA

**30 URTE LABORARI TXIKIEN
EREDUA DEFENDATZEN****GARAZI ZABALETA**
@TIRIKITRANN

30 urte beteko ditu datorren urtean Ipar Euskal Herriko Arrapitz Federazioak. “Sortu ginen garaian departamendu mailako laborantza ganbara zegoen bakarrik, eta ondoan baginen laborantzako garapena beste molde batez ikusten genuenak”, gogoratu ditu hastapenak Pantxika Maitia federazioko lehendakariak. Paueko laborantza ganbarak erantzuten ez zien eskaerei bide emateko, laborari eta abeltzain txikien sei elkarte batu eta Arrapitz Federazioa sortu zuten 1991n. Geroztik ibilbide oparoa izan du proiektuak, eta laborari txikien erreferente bilakatu da eskualdean, 19 elkarte batuz bere barnean.

EREDU TALKA

Laborantza ulertzeko eta egiteko bi modu kontrajarriren adibide izan zen Arrapitzen sorrera: “Gu etxalde txiki-takoak ginen, laborarien geroa beste molde batez pentsatzen genuen”. Departamendu mailako Paueko ganberak laborantza industrialagoaren aldeko apustua egina zuen, eta horren aurrean bestelako eredu baten alde egitea zen Arrapitzeko elkarten helburua. “Paue-rat joan ginen diru-laguntzak-eta galdegitera, eta zuzendaria gutaz trufatu zen: ‘Bide bazterreko saltzaile horiek lagundu nahi dituzue? Horiek ez dute gerorik!’, esaten zigun hark”.

Gaur da eguna departamenduan instalatzen diren laborarien erdiak etxe ekoiz-



Hiru alorretan egiten du lan federazioak: nekazaritzan instalatzea eta transmisioa indartzen; formakuntzan eta laguntzan; eta bertako produktuak sustatzen.

penean instalatzen direna, etxalde txiki eta ertainetan. Hogei urte baino gehiago behar izan dira federazioak hastapenetik defendatu duen eredia posible ezezik, laborariei eta mendi eskualdeko bizitzari begira egokiena dela erakusteko. “Hogei urtez goiti behar izan da hori ikusteko, baina denborak arrazoina eman digu”.

**LABORARIEK LABORARIANTZAT
SORTUTAKO TRESNA**

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sorrerarekin, Federazioa bertara batu eta desagertu edo bere ibilbidearekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu behar izan zuten kideek. “Gure elkarteak ez zuen ardatz sindikalik, ikusmolde ezberdinak zeuden zentzu horretan, eta horregatik erabaki genuen EHLGekin lan egitea baina gure

bidea segitzea”. Arrapitz federazioa, laborariet euren beharrei erantzuteko sortutako tresna bat dela dio lehendakariak: federazioko batzuk sindikatzen dira, eta beste batzuk ez. Hiru alorretan egiten du lan federazioak: instalazio eta transmisioan, formakuntzan eta laguntzan, eta bertako produktuak sustatzen.

Elkarte kideen artean daude Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarteak, Bioz-karia, Biharko Lurraren Elkarteak, Buru Beltza Elkarteak, EHKOLEktiboa, Euskal Herriko Artzainak, Lurzaindia, Kintoa Euskal Txerria, Sagartzea Elkarteak, Iru-legiko Arnoen eta Ezpeletako Biperren sormarkak, eta beste hainbat. Horien guztien koordinazioa eta komunikazioa eramateko bi langile dituzte lanaldi erdian kontratatuta Arrapitzen. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko lurra

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

NESTOR BASTERRETXEA ARGAZKIGINTZAREN BITARTEZ

Bizitza iruditan

Badira erakusketa madarikatuak. Horietako bat izan zitekeen Nestor Basterretxeari Donostiako Tabakalera dagoen Kutxa Kultur Artegunea aretoan eskaintzen zaiona, inauguratu eta handik astebetera itxi behar izan baitzituen ateak. Ekainaren hasieratik urrira bitartean baina, berriz da zabalik *Nestor Basterretxea. Argazkigintzaren bitartez* erakusketa, Basterretxea artistaren iruditegi amaiezina hurbiltzeko proposamen berria.

 JONE ALAITZ URIARTE

Proiektua, Basterretxearen argazki-funts zabalean egindako ikerketaren emaitza da eta 60ko eta 70eko hamarkaden artean sortutako argazki eta ikus-entzunezko material ugari bildu eta lehen aldiz aurkeztu dira erakusketa honetan. Peio Aguirre komisario eta kritikoa sinatu du erakusketa. 2013. urtean Bilboko Arte Ederren Museoan ere atzera-begirako bat komisariatu zion Basterretxeari *Forma y universo* izenburupean artista oraindik bizirik zela. Orduetik lanean jarraitu du Basterretxearen ekoizpen anitzean arakatzen eta oraingo honetan artistak Hondarribiko Idurmendieta baserrian zuen argazki artxiboan –edo *ez-artxiboan*– jarri du fokua. Aztergai izan ditu bertan –kaxetan, karpetetan, etxeko hainbat lekutan– sakabanaturik zeuden negatibo, diapositiba, argazki eta –neurri txikiago batean– apunte eta metrajeak. Aguirrek, irudiak eskaneatu, sailkatu, multzokatu eta intuizioa lagun, aukeratu eta argitara ekarri ditu uneoro Basterretxea familiaren konplizitatea eta esku-zabaltasuna lagun izan dituela. Argazki horietako batzuk, dotore inprimatuta eta multzoka zintzilik ikusiko ditugu hormetan; beste batzuk ordea, dokumental baten material bilakaturik aurkituko ditugu.

Erakusketan, batez ere, 1960-74 urte bitartean egindako argazkiak daude, multzo ezberdinetan sailkatuta –folklorea, natura eta natura hilak, rayogramak, intimitatea, eskultura...–. Hauetan, Basterre-



txearen begirada artistikoa bere senitarteko, bere eskultura, proiektu eta etxeko bazter ugaritan pausatzen da. Irunen Oteizarekin batera zuen estudio-tailerrean egindako argazkiak dira gehienak, plano itxikoak eta argiztapen zainduarekin egindakoak, horietako askotan argi eta itzalen kontraste handia ikusten dela. Erretratu ederrak ere badira, tradizio piktorikoaren influentzia antzematen da. Bere familia eta gertuko ingurunea maiz izan zituen argazki kameraren objektiboan, maitasun eta afektu handiko irudiak dira. Artistaren autoerretratu bat baino gehiago ere aurkituko dugu ibilbide osoan. Argazki hauen bitartez, badirudi, une batez bada ere, eskultorearen esfera pribatuenera sartzeko lizentzia ematen zaigula, behatxuloaz

bestalde zer dagoen begiratzeko baimena. Intimitate tonu hori izango da erakusketa guztian gailenduko dena eta poliki-poliki Basterretxearen biografiara gerturatuko gaituena.

Intenzionalitate guztiz artistikoa duten argazki horiek, asmo dokumentalagoa duten beste batzuekin bizikidetzan daude erakusketan. Beheko solairuko espazioaren erdigunean, kubo beltz itxurako gela-txoa kokatu dute, zine areto txiki bat baidiruz. *N.B.-ren erretratu bat* (24', kolorea, soinua) izenburua duen doku-entsegu bat aurkezten zaigu bertan, erakusketa honetako harribitxia izango dena. Dokumentalak, Idurmendieta baserrian eskuratutako argazkiak edo *irudi-dokumentuak* hartzen ditu abiapuntutzat eta horien bitartez

Basterretxearen begirada artistikoa bere senitarteko, bere eskultura, proiektu eta etxeko bazter ugaritan pausatzen da erakusketa honetan

Basterretxearen ahalezko erretratu bat osatzen du. Irudi finkoen muntaia zainduak, aipuek, soinu ezberdinek, oroitzapen pusketek eta batez ere narratzailearen off-ahotsak trazatzen duen memoriaz osatutako ibilbide poetikoa da. Bizitza bat irudietan.

Dokumentalari Maider Oleaga zinegi-leak jartzen dio ahotsa, lehen pertsonak dakarren hurbiltasunaz eskutitz baten tonu eta erritmoa antzeman daiteke bere hitzetan, hurbileko lagun min bati eskaintzen zaizkion berbak dirudite. Intentsitatez bizitako bizitza baten pasarteak ikusiko ditugu dokumentalean, Basterretxearen egonaldiak eta bidaiak –Argentina, Ameriketako Estatu Batuak eta Europako hiriburuak–, erakusketak –1960. urtean Madrilgo Sala Negra aretoan Oteizarekin batera egindakoa, adibidez– eta bere proiektu enblematikoenetako batzuk –besteak beste, *Pio Barojari omenaldia* (1972) eta *Omenaldia hiru Pasaia artean, itsasoan hildako seme-alaben oroimenez* (1972) eskulturak-. Baina batez ere, oroitzapen eta instanteez jositako *storytelling* bat da eskaintzen zaiguna, partziala eta zatikatua, subjektiboa eta intimoa; ez al dira hala gure oroitzapenak?

Modernitatearen oinordeko bezala, Basterretxeak etengabe gurutzatu zituen diziplinen arteko mugak. Marrazkiak, margolanak, eskulturak, altzarien diseinua, arkitekturarako forma ezinezkoak eta filmak –ezagunenak *Operación H* (1963), *Pelotari* (1964) eta *Amalur* (1968), azken bi hauek Fernando Larrukertekin batera egindakoak– egin zituen bere ibilbide profesional oparoan zehar. Horrela, Arteguneke lehen solairuan, hamasei milimetrotako proiektore batean hiru minutu irauten duen eskultura-bizia dago ikusgai, Basterretxeak egindako ebakin, *collage* eta argazki-muntaketekin Super 8 kameran bertan muntatutako filma. Aldameneko beira-arasa batean *collage* guzti horiek daude ikusgai, artistak berak egindako apunte eta notekin, eta karpeta urdin baten azpian irakur



HARRIJASOTZAILE.

Nestor Basterretxeak argazkilari gisa sortutako lanak ezagutzeko aukera paregabea da Donostian ikus daitekeen erakusketa.

daiteke: *Film, película o lo que sea*. Super 8 kameraz Basterretxeak berak grabatutako bidaien eta familia pasarteen metrajeak ere badaude ikusgai, Elias Querejeta Zine Eskolako ikasleek ikuskatu, aukeratu eta muntatutako filmak dira.

Dударик gabe, Nestor Basterretxearen alderdi ezezagunago batean murgil-

tzeko aukera ematen digu bere argazki-gintzan oinarritutako gerturatze honek. Bizitza bateko irudiak ardatz hartuta, gizon baten erretratu osatzeko saiakerara dugu, zeinean oroimenak eta bizipe-nak, bizitza-une iheskor horiek, bizitza-pusketak, material garrantzitsuena bilakatzen diren. ●

ANTONIO SCURATIREN 'M'
TRILOGIAKO BIGARREN LIBURUA

Mussoliniren zer eta nola guztiak

Irailaren 23an argitaratu da Italian Antonio Scuratiren *M. Il figlio del secolo* (“M. Mendearen semea”) nobelari segida emango dion liburua, *M. L'uomo della provvidenza* (“M. Probidentziaren gizona”). Herrialdeko liburu-dendetan gertakizun handia espero dute, 2018an argitaratutako lehenbiziko bolumenak izan zuen arrakasta kontuan izanda. Benito Mussolini boterera nola iritsi zen fikzionatu zuen idazle italiarrak duela bi urteko lan hartan, dokumentazio-lan ikaragarria eginez eta, faxismoaren gaia oraindik den bezain arantzatsua izanda, polemika eraginez.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Imajinario italiarrean Mussolinik totem bat izaten jarraitzen du, oso irudi karismatikoa, erreprimitu dugun nazioaren aita maltzur moduko bat”, esplikatu zuen Scuratik duela bi urte pasatxo egin zioten elkarrizketa batean. “Liburu honek errepresio horretatik atera du”. Ustekabeko arrakasta izan zuen *M-k*, eta liburu-dendetako salmenta-zifrek –ehunka mila ale saldu zituen– edo 2019an *Strega* saria irabazteak ez zuten eztabaida eragotzi: nola kontatu behar du literaturak Mussolini? Scuratiren jarraitzaileek liburua beharrezko oroigarri gisa hartzen dute, faxismoaren basakeria zer izan zen erakusten duelako, gertatutakoa ahaztu ez dadin egin beharreko zerbait –baita, batez ere, errepika ez dadin–. Scuratiren kritikoez argudiatzen dute, ordea, Eu-

ropa osoan Salvini, Orban, Le Pen, Abascalak indarrean ari diren unean, buruz behera zegoen diktadore zaharra gaketik askatzea arriskutsua izan daitekeela.

800 orrialde baino gehiagoko lanak bere burua eleberrizat aurkeztu zuen, baina egiazki fikziozko obra baten eta historia-liburu baten arteko lerroak lausotzera jolasten du. Kapitulu laburrak, xehetasunez beteak; eta haien artean, pertsonaia historikoez benetan bidalitako telegramen zatiak, egunkarietako artikulak, gutunak, polizia-txostenak. Kapituluak narratzaile orojakile bat dute, baina neurri handi batean Mussolini eta bere kolaboratzaileen ikuspegiaren oinarritzen dira. Liburuko aipu zuzen guztiak iturri historikoetatik ateratakoak dira eta lehenbiziko nobela aurkeztu ondoren Scuratik azaldu zuenez, pertso-

naien pentsamendu intimoak sortzeko ere iturri historikoak izan zituen oinarri: “Ezer ez da asmatua”.

FAXISMOAREN DNA

1919tik 1925era bitarteko Italian murgildu zen irakurlea lehenbiziko liburu horrekin: Lehen Mundu Gerra ostean animoa lurretik arrastaka daraman herrialdean sortu berri den mugimendu faxistak pertsonaia arraroen katalogoa dirudi. Haien artean daude zenbait “arditi” (“ausartak”), lubakien gerran eliteko tropetan aritutako beteranoak, gerraosteko paktuekin traizionatuta sentitzen direnak; baita futuristen abangoardia artistikoko kideak ere, Filippo Tommaso Marinetti buru dutela, arriskuari, energiari eta ausarkeriari bibaka; sindikalista batzuk ere bai, mugimendu berriaren adieraz-



EZUSTEKO ARRAKASTA. MILAKA LIBURU SALDUTA DUELA BI URTEKO FENOMENO LITERARIOA BILAKATU ZEN ANTONIO SCURATIREN *M*. ASTE HONETAN PUBLIKATU DA BIGARREN ZATIA.

pen pseudo-iraultzaileek erakarrira. Han dago Gabriele d'Annunzio poeta, noski, nahiz eta laster, soldadu batzuk lagun hartuta, Italiaren mugetatik kanpo geratu den Fiume berreskuratzera abiatuko den. Eta han da, nola ez, Benito Mussolini, alderdi sozialistaren *Avanti!* egunkariko zuzendari izandakoa, Italiak gerran parte hartzearen alde posizionatu zelako partidutik kanporatua izan ondoren abentura berri bat martxan jartzeko prest.

Corriere della Sera egunkariak lapurreta arrunt bati eskainitako lerro kopuru bera gastatu zuen, gutxi asko, "*Fasci italiani di combattimento*" haien sorreraz informatzeko. Sei urteren buruan estatuko buruzagitza Mussoliniren eskuetan zegoen, biolentzia basatiaz baliatuz, langileria antolatua beldurtuz, kalkulagailu politikoa erabiliz eta botere ekonomikoaren laguntza handi samarrarekin. Giacomo Matteotti diputatu sozialistaren hilketarekin amaitzen da *M*-ren lehen bolumentan, Mussolinik heriotza horren ardura bere gain hartu eta *de facto* sistema demokratikoa bertan behera gertatzen denean. Puntu horretara iritsi arte ordea, xehetasun guztiekin ikusi ahal izan du irakurleak nola joan den josten totalitarismoaren armiarma-sarea, ezinezkoa zirudien desastrea gertatu arte.

Faxismoaren DNA nobelatzeko asmo horren barruan, idazleak aurreratu du bigarren liburuak –zeinak lehenbizikoak baino bolumen gutxiago izango duen, 400 orrialde inguru– 1926tik 1932rainoko tartea hartuko duela. Tarte horretan *Duce*-ak bere agintea finkatu zuen Pio XI aita santuak "probidentziaren gizona" gisa deskribatzeraino, baina etengabeko arriskuan bizi izan zen, osasun arazo larriengatik eta lau aldiz saiatu zirelako beraren kontra atentatzen.

NEUTRALITASUNA?

Liburuaren inguruko polemikak bizirik jarraituko du bigarren bolumen horren ondoren ere. Scuratik pulsu azkarreko estilo baten alde egin zuen hasieratik, tarteka girotuta dagoen garaian bertan idatzitako kronikaren traza hartzen duen testua osatuz. Zilegi da hori egitea? Idatzi daiteke faxismoaz ondoren ekarri zuen guztiaren zama bizkar gainean hartu gabe? Kritikari batzuk kezkatuta agertu dira, Scuratiren narratibaren "neutraltasunak" faxismoaren historia "iragazki ideologiko eta politikorik gabe" kontatzen omen duelako. Adibidez Ruth Ben-Ghiatek, faxismoan espezializatutako New Yorkeko Unibertsitateko akademiko batek, Mussoliniren "errehabilita-

zioaren" sintoma bezala deskribatu zuen *M*. "Faxismoaren historia diktaduraren historia da, buruzagia gurtzean oinarritzen dena", azaldu zuen. "Liderraren gurtza berpizten ari den fenomeno baten parte da liburu hau".

Oso bestelako irakurketa ere egin daiteke ordea: Scuratik esplikatu izan duenez, nobela honekin lortu nahi zuen islatzea nolako miresmena eragin zuen Mussolinik bere garaiko italiarren artean. Nobelaz mozarrotutako historia-lezio antifaxista gisa ere aurkeztu izan du liburua. Eta esaldi batean laburbildu zuen orain arteko bere obra arrakastatsuenaren idazkerak eragindako polemikaren aurrean zein den bere ikuspegia: "Faxismoa gaizkia izan bazen, Italiara eta Europara gaizkia ekarri bazuen, hori naturaltasunez agertu behar da nobelan". *M*-k sortzen duen efektuetako bat hori baita: liburua irakurtzean, Mussolinik munstro historiko izateari uzten dio, baldintza konkretu batzuk baliatuz boterera iristen den pertsonaia bihurtzeko. Eta, alde horretatik, gaur egungo irakurleentzat funtsezko galdera bati erantzuteko gailua bihurtzen da nobela: nola gertatu zen hori guztia? Etengabe gogorarazi behar den zerbait, zer gertatu zen gogora ekartzearekin batera. ●



LIBURUA

Sagar berde helduak



JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

ARO BEILEGIA LIZAR BEGOÑA

BALEA ZURIA, 2020

IGOR ESTANKONA

Donostia Kulturak eta Balea Zuria argitaletxeak antolatzen duten aurtengo DK poesia saria *Aro beilegia* honentzat izan da. Milurteko batetik bestera oharkabean igaro den belaunaldiaren ordezkari, Lizar Begoñaren (Sopela, 1996) estreinako liburuak ematen du azkena, dena bukatua, dena hausnartua dakarrelako. Denboraren kontzientzia sakona dauka, galerarena. Baita estetikarena ere, eta justiziarena. Jolas egiten du hizkuntzarekin, baina mezua dauka erdigunean *Aro beilegiak*, gariak urre kolorea hartzen duen uda batetik baletor bezala, baina neguaren atarian egon: “Gerra bestelakoa dela esan du,/ soldadu berriak esporak moduan/ planeta osotik hedatu direla,/ euren buruen kontzientziarik gabe/ ugal-


du direla kolonizatzaileak, // eta horiek gu garella”.

Batzuetan ematen du epiteto bat daukala sobran, lerro bat gehiago jarri diola ahapaldiari, edo erori egiten zaizkiola instalazio konplikatuegiak. Artea egin nahiko balu bezala, antsia askorekin, idatzita datoz zenbait manifestu. Hala ere, motzean eta zirt edo zart egin behar den poemetan beti asmatzen du, kolpea dauka: “Rudy Gracia eta biok oheratu gara,/ eta bere orgasmoaren erdian/ Amen oihukatu die inguratzen gintuzten/ eta zuzenean Youtuben emititzen ari ziren/ hamasei mikrofono eta kamarei”.

Aro beilegia leiho bat da Internetera, mundu txiki honen zabaleretara. Heldua da liburu inizatiko bat izan dadin, baina era berean freskoa eta ausarta.

Sigi-saga doa amets eta amesgaiztoen artean, publikotik pribatura eginez askotan. Azkenean irakurleak ez daki non ezkutatu den poeta, non argazkilaria, zer den pintura, zer erreala. Zer eremu semantiko dagokion gauza bakoitzari: “Hor zaude;/ egongaitz,/ aldakor,/ ezezagun. // Hor zaude,/ erortzear,/ plural,/ endredatuta”.

Lizar Begoñak idatzi egin nahi du. Askotan ari da idazteaz. Dazkan dilema eta morrontzez, hartu ditzakeen bideez. Irakurle bat daroa erraetan, ordea, dudarazi egiten diona. Eta kontserbadore dabilenean urrundu egiten den arren emozioetatik eta poesiaren arimatik, kementsu dabilenean indar itzela dauka, kapaz da arazo unibertsalez hitz egiteko bere baitatik. ●



MUSIKA

Bidean aurrera



UTOPIAN GARA ASKE AZKEN SUSTRAIAK

AUTOEKOIZPENA, 2019

IKER BARANDIARAN

Taldeen izenek eta haienganako izan ditzakegun aurreiritziak tesi baterako eman dezakete lasai asko. Izan ere, Beasaingo talde honen izena lehen aldiz entzun nuenean reggae orbitan kokatu nuen... Baina ez da horrela: Oi! edo street-punk estiloetan trebatutako ki-deek osatzen dute, eta proiektu honekin harago joatea erabaki zuten, ñabardura asko dituen punk melodikoa egitea, hain zuzen ere.

Beasain izan da aspaldian kaleko doinuen eremua, eta Azken Sustraiakeko bi kidek The Sinners izan zuten oinarri. 2017an, baina, bestelako doinuak probatzea erabaki zuten eta poliki-poliki laukotea osatu zuten. 2018an, eraldatze hori irudikatuz *Azal berri bat* lan luzea

argitaratu zuten, eta jarraian boskote bihurtu.

Ideiak are eta argiago, eta soinu gero eta irmoagoarekin, utopiekin aurrera egitearen aldeko aldarria den *Utopian gara aske* lan sendoa kaleratu dute. Ideiak argi, batu aurretik hausnartzeko ezinbestekoak diren hitz argigarriak, talde lotura egokia, gitarra oso aberatsak, eta estilo-paleta zabala. Zoritxarrez, beste asko eta askori bezala, pandemiak bidea moztu die.

Nor nori nork punk-rock melodikoa da, itsaskorra eta indartsua, Alemaniako punka gogora ekartzen duena. *Cristales rotos* Social Distortionen melodiak eta Oi!-aren ukitua dituen kanta sendoa. *Prest al gaude?* Never Surrender gogora

ekartzen duen pieza nostalgikoa. *Refugio* Crime eta hastapenetako Turbonegro gogora ekartzen duen pieza punk-rockero garratza. *Anormalak gara* Sex Pistols, punk-Oi!-a eta estereotipoen kontrako hitz sinesgarriak batzen dituen koktelera. *Hilezkorrak* Arrasateko tabernaren batean erditu ahal zen folk-Oi!-punk pieza biluzia. *Eterna guerra interna* zapalgailurik gabeko punk-rock garratza. *Isiltasun eta lokatz* Mike Ness azkarrenari gorazarrea. *Moscas* punk-rock eta Oi! klasikoa. *Gezurri egia* oso ondo orekatutako tempo erdiko punk-rocka. *Algunas balas* punk-hard-rock-and-roll kanta borobila. Eta, azkenik, *Crear para crecer* AEBetako hegoaldeko doinu puruetatik ederto edaten duen punk melodikoa. ●



Iturri zaharretik ur berria

XALBA RAMIREZ  TINY DESK

Nubya Garcia da uneko musikari interesgarrietako bat. Jazza gustatu ala ez, bere musikalitate eta erritmo biziek, sentimenduz beteriko piezek, milaka pertsonen arreta bereganatu dute jada. Londresko musikari gazteak lehen lan luzea kaleratu berri du: *Source*. Benetan zoragarria. Tiny Desk kontzertuan aurkeztu du.

Black Lives Matters mugimenduek, diaspora beltza (atlantiko beltza zioen Paul Gilroy-k) batzearen garrantzia azpimarratu dute. Londresen ere ehunka protesta eta ekimen abiatu ditu komunitate afroak. Eta hor ere kokatu behar dugu Garcia bere oinordekotza mestizoa aldarrikatzen, Georgetowngo reggaea eta duba, Bogotako cumbia eta Nigeriako afrobeat geldo zein azkarrak nahastuz. Bere iturrirei (*source*) omenaldia.

24 urte besterik ez dituen Sam Jones bateria joleak ireki du kontzertua reggae erritmoekin. Joe Armon-Jones (Ezra

Collective) piano jole birtuosoak jarraitu dio, reggae zalearentzat ezaguna den tonuan. Kokoroko talde zoragarriko kideak atzetik lagundu dute koroetan eta atzean Daniel Casimir kontrabaxuan.

Ez dakizu ziur noiz hasi den barkaka Garcia, egiten dituen nota luzeak melodia nagusia direlakoan. Baina intentsitatea gora doan heinean, nota abiadurak ere azkartzen doaz. Bateriak lagundu egiten dio indarrean, eta une batzuetan bi solista daudela pentsatzera iritsiko gara. Baina iristen da lasaitzeko unea ere, pianoaren akorde irekiek koroei bide emango diotenak.

Eta dantzan bezala egiten du aurrera taldeak. Mugimendua nabaria da. Bestela adi egon Garciaren ezkerretara dagoen landare horri. Bai, ez dio mugitzea-ri utzi saioak iraun bitartean. Estudio eder hori (eta diskoa ia osorik) Tamesis ibaian lotuta dagoen barku batean dagoelako. Bai, barku batean!

NUBYA GARCIA

IRAILAK 16

TINY DESK HOME

TAMESIS IBAIAN (LONDRES, INGALATERRA)



Bikaina da ikuskizuna, *Pace* kanta bereziki. Kolore, intentsitate eta helduleku ederrak erabiltzen ditu Garciak, intuizio eta dotorezia handienaz. Jarraian Armon-Jones geratuko da bakarrik, eta hasieran bere soloak ohikoak baino sinpleagoa dirudien arren, laster hasiko da klasikotik datozen influentziak ateratzen, disonantziak nahita erabiltzen eta melodia berriak gehitzen. Beti ere kantaren alde. Beti ere talde bezala. Hemen denak doaz-eta elkarrekin.

Opari bat da gisa hauetako kontzertuez gozatu ahal izatea. Askoz nahiago aurrez aurrekoak badira. Agintariak Mercadonan edo zezen plazetan egiten duten salbuespena kultur ekimenetan egingo balitz, edo ausardia apurtxo bat gehiago bagenu, agian ikusiko genituzke. Bitartean antolatzen diren ikuskitzuzun gutxietan sarrera guztiak agortu eta bestelako bideetatik gozatzen jarraitu beharko. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA YLENIA BENITOK, BRONTĒ LIBURU-DENDAREN SORTZAILEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.




Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Lastima, atsekabe. 2. Bukaera, amaiera.
3. Altzari hankadun. 4. Zurezko ontzi.
5. Lurjausi.



		2	7						
		9	2	1					6
	4	3		9					5
	9			7	3				
			5						
		5	3						1
7			9			2	4		
3			8	4		5			
				1		6			

ERRAZA

8				6				9	
				4	3				
6		2	9						
	4					7			
	2	3				6	8		
		7					4		
					8	1		5	
				2	5				
9				3					2

ZAILA

EBAZPENAK

6	8	2	5	7	3	1	9	4	
4	9	1	2	6	7	3	5	1	
8	3	7	1	5	4	7	3	5	8
4	9	1	2	6	7	3	5	1	
8	3	7	1	5	4	7	3	5	8
2	6	5	3	9	8	4	1	7	
7	5	8	9	3	6	2	4	1	
3	1	6	8	4	2	5	7	9	
9	2	4	7	1	5	6	8	3	

ERRAZA

8	5	4	1	6	2	3	9	7	
7	1	9	8	4	3	5	2	6	
6	3	2	9	7	5	4	1	8	
9	4	8	3	2	6	7	5	1	
5	2	3	7	1	4	6	8	9	
1	6	7	5	8	9	2	4	3	
2	7	6	4	9	8	1	3	5	
3	8	1	2	5	7	9	6	4	
4	9	5	6	3	1	8	7	2	

ZAILA

PUZLEA: "BATZETAN LIBURU-DENDA TXIKIEI LOTUTAKO IDEIA ERROMANTIKOA DUGU, BAINA ERREALITATEA EZ DA HAIN ERROMANTIKOA, ETA JAKIN BANEKIEIN ZAILA LANGO ZELA."
5XS: 1. TAMAL, 2. AKABU, 3. MAHAL, 4. ABATZ, 5. LUZIZ.
HIZKI BERAK: 1. ILBEHERA, 2. OLIBONDO, 3. PUBLIKOA, 4. AHALBIDE, 5. BIRIBILA, 6. BARRABIL.

Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				E	H	E	R	A	
2	O				O	N	D	O	
3	P	U				K	O	A	
4	A	H	A				D	E	
5	B	I	R	I				A	
6	B	A	R	R	A				

Eva Perez-Pons Andrade

AHOTS BERRIA
EUSKAL POESIAN



POESIA, INGENIARI BEGIRADATIK

“Ez zait asko gustatzen ingeniaria naizela esatea, ez baitut batere gozatu ikasketa prozesuaz. Esan ohi dut bizitza honetan nire akatsetako bat izan dela ingeniari batean sartzea, eta beste akats bat izan dela lehen astean ikasketak utzi ez izana. Edozela ere, kurioa egiten zitzaidanik bazen: jendarteko zenbait aspektu azaltzeko, irakasten zizkiguten teoria asko nola estrapolatzen ziren ikus-tea. Zenbaki bitarren kasuan, adibidez, soilik 1-ak eta 0-ak egotea parekatzen zen jendartean soilik bi genero egotearekin. Hausnarerako ematen zidan. Teoriei zentzua ikusten nien neutro gisa etiketatuta dauden teknologiaren eta zientziaren esparruan, eta zentzua ikusten nion neutraltasun hori jendartean lurreratzeari, gauza batzuk normalizatzeke eta horrelakoak direla esateko helburuarekin. Liburuaren titulua eta zenbait termino bai daude oso lotuta ingeniariarekin, bi mundu horien arteko hibridazioa eginez”.

“Erabat kontzienteki idatzi dut gorputzaren inguruan eta gorputzetik”

Blas de Otero-Bilbo Uria Nazioarteko XII. Poesia Lehiaketako sari nagusia irabazi zuen iaz Eva Perez-Pons Andradek (Lemoa, 1996). Lanaren argitarapena sariaren parte izanik, ekainean ikusi du argia *Zaharkitze Programatua* (Erein, 2020) izendatu duen poesia bildumak. Zaurgarritasunak zeharkatzen du lemoaztar gaztearen lehen argitalpena, berau baitu gai zentral eta poesien arteko lotura, nahiz eta esplizituki ageri ez.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Saria eta lehen argitalpena besapean eman zara ezagutzera poesiaren eremuan. Nola bizi izan duzu lehiaketa irabaztea?

Agian materialista geratuko da esatera noana, baina saria irabazi nuela jakinarazi zidatenean diru kopuruan erreparatu nuen. Momentu hartan prekarario nebilen, telefonista gisa lanean, eta alokairua ordaintzeko ozta-ozta ematen zidan. Hala bada, pozik jazo nuen berria. Gero, Erein argitaletxetik liburua argitaratu behar zela-eta deitu zidatenean, bertigo apur bat sentitu nuen. Aurkezpenetan nahiko txarto pasa dut, antsietateaz bizi izan ditut, baina joan naiz horretara ere ohitzen. Uste dut nahiko handi geratu zaidala, baina bestalde iruditzen zait liburuak harrera nahiko ona izan duela, eta zentzu horretan pozik nago.

Berariaz lehiaketarako sortutako liburua da? Ala sorburua beste bat du?

2016a izango zen idazten hasi nintzenean, neuretzako. Lehiaketa deialdia ikusi nuenean etxetik joan eta master bat egin nahi nuen, beraz aurkeztea erabaki nuen.

Zerk eraman zintuen poesia idaztera?

Guztiaren hasiera krisi existenzial bat izan zen. Nintzen edo egin ninduten hori guztia jarri nuen zalantzatan: hezkuntza, sexualitatea, erlijioa, familia, harremantzeko nituen moduak... Dena. Haustura bat egin nahi izan nuen horrekin guztiarekin, baina hein batean hori masen kontra joatea ere bazen... Nire burua nahiko baka-rrik ikusi nuen. Egoera horretan sentitzen nuena deskribatzeko modu bat nahi nuen bilatu eta poesiaren bitartez aurkitu nuen horretarako bidea.

Nolako izan da liburua idazteko prozesua?

Luzea eta motela izan da. Oso momentu zehatzetan idatzi dut. Ez da tristura edo depresioa erromantizatzeagatik, baina oso txarto nengoen zenbait momentu eskatzen zidaten barruan nuen hori ateratzea, hitzak jarri eta zer gertatzen zitzaidan ulertu ahal izateko. Lasaitasun egoerak ere aprobe-txatu ditut idazteko, baita erorikoen osteko goraldiak ere. Prozesua ez da batere konstantea izan; aste berean idazten nituen hiru edo lau poesia, eta gero lau hilabetez egon nintekeen ezer idazteko beharrik gabe.



"HASIERAKO INTENTZIOA EZ ZEN ZAURGARRITASUNA LANTZEA, INONDIK INORA. BAINA EREINEKOEK AURKEZPENEAN LIBURUA ZERI BURUZ DOAN AZALTZEKO ESKATU ZIDATENEAN, ZAURGARRITASUNA IZAN ZEN BURURA ETORRI ZITZ AidAN LEHEN GAUZA".

Zaharkitze programatua du izenburua lanak. Nondik datorkio titulua?

Gailu elektronikoak fabrikatzerakoan, fabrikatzaileak xedatzen du zein izango den beren bizitza erabilgarria eta horren arabera heltzen da momentu bat non gailuok apurtzen diren edo geratzen diren funtzioetako asko bete ezinik... Bada egungo jendartean gertatzen denaren metafora modukoa egin nahi izan dut tituluarekin. Eskema zurrun batzuetara egokitzen ez bazara edo ez badituzu harremantzeko edota pentsatzeko modu oso zehatz batzuk, ez badaukazu mentalitate oso produktibista, umorea beste modu batera ulertzen baduzu... Guzti horrek amaitzen du eragin zuzena izaten osasun mentalean eta horren adierazle printzipala gorputza da. Planto egiten du. Liburuak jasotzen du egoera kritiko horietan nola erreakzionatzen duen gorputzak.

Ez da irakurketa xamurra. Bortizkeria eta zaurgarritasuna gordin ageri dira.

Hasierako intentzioa ez zen zaurgarritasuna lantzea, inondik inora. Baina Ereinekoek aurkezpenean liburua zeri buruz doan azaltzeko eskatu zidatenean, lana

gaintik irakurri eta zaurgarritasuna izan zen burura etorri zitzaidan lehen gauza. Nahiz eta hitz hori liburuan inon ageri ez, gura nuke irakurleak hori atzematea eta zaurgarritasunaren irakurketa positiboa egitea, denok dugun berezko ezaugarri bezala hautematea. Zaurgarritasuna baita ondokoen berdin egiten gaituena, eta geure buruak zaugarri edo ahul onartzeak besteekiko beharra adierazten baitu.

Judith Butlerrek dio zaurgarritasunaren irakurketa positibo horrek egituratzen dituela borrokak-eta, azken finean erresistentzia zaurgarritasun horren mobilizazioa baita. Erresistentzian zu bakarrik baldin bazaude ideologikoki kontra egin dezakezu agian, baina era berean ari zara individualismoa elikatzen. Eta niri hori gertatu zitzaidan: sortu nuen ni erradikal bat, nire arazo eta abarrekin. Gure buruak ez akabatzeko eta zeozer produktiboa edo erreala egiteko beharrezkoa da gure buruak zaugarri eta ahul onartzea.

Bortizkeriaren aurrean altxamendurik ere aurkituko du irakurleak.

Liburua idatzi nuenean nengoen bezala egoteko arrazoietakoa bat zera zen, ez

zitzaidala gustatzen nola zegoen antolatuta mundua, eta beraz, besteren artean, aldarrikapen puntu bat ere baneukan barruan. Batez ere heterosexuallitateak eta patriarkatuak dakartenari dagokionez, gehien zeharkatu nauten bi aspektu baitira, prekaritatearekin batera. Modu zuzenean azaleratu gura izan ditut horiek.

Bortxa, zaurgarritasuna, aldarria zein plazera, haragiztaturik ageri dira. Irudipena dut gorputza ere mintzo dela poesietan. Gorputzetik idatzitako lana da?

Badirudi gorputzaren inguruan hitz egiteko gorputza deskribatu behar dela, baina gorputzaren inguruan hitz egiteko edo hausnartzeko, gorputzak berak hitz egitea oso interesgarria delakoan nago. Gorputz praktiken bidez, pentsatzen eta hausnartzen ditugunen bitartez, gorputza nola dagoen jakin baitaiteke.

Lan honen abiapuntua aipatutako krisi existentziala izan zen, eraman ninduen depresiora, halako immobilismo batetara, eta gorputza nigandik kanpoko zeozer bailitzan sentitzen nuen. Hori horrela, erabat kontzienteki idatzi dut gorputzaren inguruan eta gorputzetik. ●



Porruen salmentak behera egin du Donostian, “faxisten modako barazkia” delako



ENEKO GOIARI EZ ZAIO AXOLA JENDEAK ZER PENTSATZEN DUEN. NOSKI, BERA EZ DA HERRI TXIKI BATEKOA.

Fernando Aramburu idazleak esan ostean herri txikietako jende askok Donostiara joan behar izan duela “Patria” erostera, etxera poltsa batean sartuta eramateko, porru sorta baten azpian ezkutaturik, jada inork ez du Bretxako postuetan barazkirik erosten, “faxistatzat” hartuko dutelakoan. Zeren eta aski jakina da herri txikietako jendeak, Goie-

rri ingurukoek esaterako, kapitalera bidaiatzan duten aldiro porru batzuekin itzultzen direla etxera, Vitorira doazenean “Vasquitos y nesquitas” kaxa batekin itzultzen diren moduan. Bada, akabo. Gaurtik aurrera barazkirik ez dute erosi-ko goierritarrek. Lehendik ere nahikoa estigmatizatuta ez baleude bezala; ez goierritarrak, barazkiak baizik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Eskolan, gauzak argi



Eta domecan jai



BENJAMIN ANGELARI BIDE EGOKIA ERAKUSTEN

Moriako jendilajearekin zer egin ez dakiela eta, Europak Israeli laguntza eskatu dio

Greziako Moria errefuxiatu-eremuak su hartu (ejem!) zuenetik, milaka lagun bide bazterrean bizirauten ari dira. Eta, antza, horregatik migratzaileak pixka bat haserretu dira munduarekin. Hori ez zaio gustatu Europar Batasunari eta bera ere oso triste jarri da, Angela Merkel ere oso triste dagoelako. Egoera bideratzeko, agintari europarrek Israeli gomendioa eskatu dio-

te errefuxiatuak masiboki sortzeko duen eskarmentuagatik. Eta badute konponbidea Netanyahuaren gomendioei esker: oso fuerte pentsatu eta Bakearen Nobel Saria irabazi nahi duen jende oso listoaz osatutako nazioarteko jardunaldi batzuk antolatuko dituzte egoeraz hausnartzeko, errautsen gainean plastikozko beste karpin-denda batzuk jarri bitartean. ●



ARGIA

Sasoi trumoitu su hauetan
inor ez dadila
ARGI Arik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

Kamiseta berriak!

Agroekologia mugimendua eta ARGIA elkarlanean



%100 kotoi organikoa.

19,5€

Kamiseta erosita, 2€-ko ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari eta beste hainbestekoa ARGIAri.

LURRA
HERRIARI
DEIKA

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerrezko iraultza!

Erosteke: azoka.argia.eus 943 37 15 45